

# ttüpi-ttapa

1996ko maiatzak 23 • 182. zenbakia

Elkarrizketa

**Jose Agustin OIARTZABAL**

«Zigor Kode berriarekin  
Administrazioak ez du langile  
infsumiturik onartuko»



**ESKUALDE ARTEKO  
GATAZKA SORTU DA  
INBERTSIOAK ESKATZERAKOAN**



# KENDU ZAMAK GAINETIK

RENAULT EXPRESS  
COMBI RL 1.9 D 55 C.V.



Renault Express Combi 1.9 D -arekin, zama ugari kenduko dituzu gainetik. Bere **55 CVko potentzia eta bere prezio harrigarriari esker: 1.595.000 pezeta.** Eta gehiago lasai zaitezten, Express Combi - ak **Blaupunkt 3005 irratikaseta; 5 abiadura; 5 eserleku; sabai irekigarria; argiak barnetik erregulatzeko mekanismoa; atzeko aulkia tolesgarria eta kargalekuko zola estaliak** ekartzen ditu.

**1.595.000**  
Pta.



RENAULT  
GIDATZEKO  
PLAZERRA

PEDRO GARMENDIA, S.A.  
Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 ELIZONDO

TALLERES SANTESTEBAN  
Leitzako Errep., kma - Tfnoa. 45 02 82 DONEZTEBE

SEMPER HNOS., S.L.  
Irun - Iruña Errep. - Tfnoa. 63 06 21 BERA

## Haize Egokitua dohainik edo 150.000 Pta.ko deskontua

Volkswagen-en badakigu zein garrantzitsua den zure autoa zuretzat. Badakigu zure eremua dela, zure bizi eremua, zure denbora. Seguraski benetan zeurea den gauza bakarra. Eta badakigu edozein autok ez dizula balio.


Horregatik sortu dugu Poloa. Eta horrexegatik aukeratu duzu zuk. Gustoko duzulako eta ekipamenduari dagokionez besteek ematen ez dizutena ematen dizulako, berekin fida zaitezkeelako, zure sakelaren neurriko prezioa duelako, bere barnean eroso eta

seguru sentitzen zarelako. Zure Poloak eta zuk bide luzea duzue aurrean.

Poloak 1.259.000 Ptatik. aitzin

**SAMPI ARAGON**

Leitzako errepidea • © 450354 / 450759  
D O N E Z T E B E





## DATUAK.....

❖ Jose Agustin Oiartzabal azkoitiarra matematika irakaslea da Lekarozko Institutuan. Bigarren urtea du aurten.

❖ Zigor Kode berriaren kontra protesta azaltzeko, bertze irakasle batzurekin batera 'hotz greba' eginen dute hilaren 23an.

❖ Batzuk barneko arropak eta manta batekin estaliak joanen dira eskolak ematera, eta bertze batzuk berriz, kode berriaren kontrako eta intsumisioaren aldeko kamisetekin.

❖ Ikasleek ere greba eginen dute biharamonean.

## Jose Agustin OIARTZABAL:

# «Zigor Kode berriarekin Administrazioan ez da langile intsumiturik onartuko»

### ZER DELA ETA 'HOTZ GREBA'?

Intsumitu preso bat bisitatu ondotik sortu zen ideia. Mantaren istorioa gizartean zabaltzea nahi dute. Guk ere hori proposatu genuen, batzuk onartu zuten eta aurrera aterako da. Beraiei elkartasuna adierazteko eta Zigor Kode berria salatzeko neurri bat da.

### ZER SUPosatzen DU ZIGOR KODE BERRIAK?

Intsumisioari dago-kionez kartzela ez da kenduko eta diru zigorrak ere segituko dira ezartzen. Intsumituak bakearen eta estatua-ren segurtasunaren aurkako lege-haustea egiten omen du eta, ondorioz, 6 eta 10 urte bitarteko inhabilitazioa eta 6 eta 24 hilabete bitarteko kartzela zigorra ezarriko zaie.

### IRAKASKUNTZAN ERE ERAGINIK IZANEN DU?

Bai, irakasle intsumituak daudenean. Ikastetxeetako jantokietan edo errekreotan zaintzak egiteko objektoreak sartu nahi dituzte. Horiek irakasle-en orduak dira, neurri batean. Hemendik aurrera ez da Hezkuntza Publikoan langile intsumiturik onartuko, intsumituek ezin dute ira-



katsi, ezin dute matrikulak ordaintzeko dirulaguntzarik jaso ezta ikastetxeetara joateko eta materialak ordaintzeko sostengurik ukan ere.

### IRAKASLE BEZALA, ARAZO HONEN AITZINEAN IKASLEAK JABETUAK DAUDELA USTE DUZU?

Ikasleak kontzien-

tziatuak daude intsumisioarekin. Orain, ez dakit zein neurritan barneratu duten etorkizunean beraiei aplikatuko zaiela Zigor Kode berri hau. Ez dut uste kodeak dakarren eragina sobera barneratua dutenik. Askorentzat urrutiko kontuak dira, baina gaur egun ez badugu zerbait egiten geroan ez dugu eginen.

### BADUZUE BERTZE MOBILIZAZIOREN BAT EGITEKO ASMORIK?

Nafarroako beste ikastetxetara zabaltzea

da gure ekimena. Gure asmoak zein diren proposatu, eta norbaitek zerbait egin nahi baldin badu... Lehenago izan ziren saiakera batzuk baina ez ziren aurrera atera. Bestalde, Nafarroako Gobernuari idatzi bat igortzeko asmoa dugu, Zigor Kodea ez ezartzea eskatuz; hau da, ez dezala prestazionistarik hartu eta ez ditzala zigor hoiek aplikatu. Kontuan hartu, OZSa betearazteko xedearekin mila lanpostu sortu nahi dituela.

► *«Ikasleak kontzientziatuak daude intsumisioarekin baina ez dut uste Zigor Kode Berriak dakarren eragina sobera barneratua dutenik. Askorentzat urrutiko kontuak dira»*



## ERREPIDEEN MOLDATZEAK

ZALANTZAN OTE DA  
KONTSENTSUA?

**Belate eta Almandozko tuneletako obrak gero eta aurreratagoak daude. Proiektuan markatutako epeak betetzen baldin badira, obra osoa abendu honetarako egina egon beharko luke.**

**Belatekoarekin, ordea, ez da eskualdeko errepideen egoera moldatua gelditzen. Egia erran, gainerako errepideak egoera penagarrian daude.**

**Gaiarekin kezkatuak dabilta aspaldi honetan eskualdeko udalak. Garraiolariek eta merkatariek zenbaitek ere hasiak dira beren kezkak plazaratzen. Momentuz, zona osoko alkate-zinegotziekin batzartzeko konpromezua hartu zuen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak joan den ortzegunean Bortzirietako alkateekin egindako bazkari-bileran. Badirudi hasierako kontsentsuak zirrikituak dituela.**

**d**iru gutiegi omen du Nafarroako Gobernuak mendialde honetan inbertitzeko. Horixe salatzzen dute zonako alkateek behin eta ber-

rrez. «Itoizko urtegiak xahutzen ditu gaur egun diru erreka izugarriak», eta testuinguru horretan, ez dirudi he-mengo errepideek burukomin haundiegirik sortzen dienik gobernuko agintariei. Azkeneko alkate-batzarretan zonako alkateek eskatu diote behin eta berriz Nafarroako Gobernuari inguru honetako errepideei buruzko lehentasunak markatzea. Kontuan hartu behar da, uda baino lehen seguruenik, Nafarroako Parlamentuak onartuko duela, azkenean, Errepideei buruzko Plan Nagusia. Momentu honetan mahai gainean dagoen gaia da hauxe. Eztabaidak maila eta erakunde desberdinetan ari dira ematen. Udalak, alderdi politikoak, garraiolariak, enpresariak... inork ez du aukerarik galdu nahi. Laister hartuko diren erabakien garrantziaz jabetuak daude guztiak. Nabarmen da hori.

**MUGAIRI-BEHOIA EDO MUGAIRI-DANTXARINEA: ZEINEK DU LEHTASUNA?**


Goian aipatutako guztiak ez dirudi ados direnik puntu honi dagokionez. Alkateek beren iritzia jakinarazia diote



# Trafiko bolumena errepide zatika

Nafarroako Gobernuak eskeini dizkigun datuak dira hauek. Neurketak aurten eginak dira eta egun bakoitzean aipatutako bide zatietan pasatzen diren ibilgailuen kopurua ageri da, eta segidan, kopuru horretatik kamioiek osatzen duten portzentaia.

EGUN  
BATEKO  
IBILGAILU  
KOPURUA



## Gobernu programan hitzartutakoa

1995-1999 legegaldian Nafarroan egingen diren obrak hitzartu zituzten bere garaian PSOE, CDN eta EA alderdiek. Horren erreferentzia egin zuen Luis Ibero kontseilariak Bortzirietako alkateekin izandako bileran ere. Berak errandakoaren arabera, Osondogaineko errepidea zabaltzea eta Oronoz eta Arraiozko saihezbideak egitea omen daude obra hoiaren artean, eta obra hoiak egiteko konpromisoa hartua du 'hiruko gobernuak'. Guziaren gibelatik «*interes politikoak*» daudela diote Bortzirietako alkateek. «*Kontseilariak berak erran zigun bezperan* –maiatzak 15— *Baztango EAkoak berekin egonak ziren. Orain arte bazirudien 121 Ak lehentasuna zuela gobernuarentzat ere. Orain badirudi ez dutela hain garbi.*»

aspaldian Nafarroako Gobernuari: 121-A errepideak du lehentasuna hauentzat, «*Lesaka eta Behobia arteko bidezatiak, bereziki*».

Enpresarien artean, ordea, ez da ikusten gauzak hain argi daudenik. Hauetako batzuk Bertizko Partzuergo Turistikoaren bitartez bilera konbokatuta zuten maiatzaren 8an Doneztebeko *Casino* elkartean eta gaiaz solastu ziren harat bildutako berrogeita hamar lagunen aitzinean. Bilerak aurrera egin zuen neurrian, eskualde arteko gerra baten itxura gehiago hartu zuen bertze deusena baino. Baztangoak Dantxarinea aldeko aterabideaz solastu ziren nagusiki, eta Bortzirietakoak, Behobia aldeko bideari ematen zioten lehentasuna.

Beharbada nahasten hasia den eztabaida honetan, alderdi politiko batzuk euren postura agertu dute dagoeneko,

**Maiatzaren 8an, enpresari talde batek deituta, bilera egin zen Doneztebe ko Casino elkartean. Gaia: Errepide Plan Nagusia.**



eta TTIPI-TTAPAREN 'Irakurleak Mintzo' sailean ikusi izanen dituzue aurreko aleetan.

### HERRILAN KONTSEILARIA BORTZIRIETAN

Bortzirietako alkateek dei-

tuta, joan den ortzegunean, maiatzak 16, Luis Ibero Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria Lesakara etorri eta bazkari bilera egin zuen alkateekin. Gaiiaz luze hitzeging ondotik, konprome-

zua hartu zuen zona osoko alkate-zinegotzi guziekin biltzeko eta «*kontsentsua biltzeko*», izan ere, uda baino lehen, Errepide Plan Nagusia Parlamentuak onartzea nahi omen du eta. ■



EGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.200 ALE

ARGITARATZAILERA: TTPI-TTAPA KE

HERRIKO ETXEO PLAZA, 1

31780 BERA

TFNOA: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

**zendaria:** Joxemanuel Iri-

en. **Publizitatea:** Miren Kar-

le Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor

ozena, Joxemanuel Irigoien.

**ministrazioa:** Amaia Goia.

**redakzio taldea:** Pello Ape-

xeia, Juainas Paul, Kristina

an, Bittori Telletxea.

**riemaileak:** Joseba Azpiroz,

teban Arozena, Juana Mari

izar, Ainhoa Mutuberria, Iban

si, Txema Aldabe, Pello Etxe-

txema, Txema Urroz, Patxi Otxan-

ena, Ixabel Maia, Josune Etxe-

ste, Pablo Mendiburu, Joseba

rabide, Alizia Olaizola, Margari

enike, Koro Irazoki, Mixel

rendiain, Jacqueline, Elixabet

ria, Garbiñe Maiz, Oskar

operena, Alberto Sansiñena,

lo Apezetxea, Aitor Arozena,

stina Boan.

**laboratzaileak:** EHNE Nafa-

a, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-

, Joxe Javier Etxeberria,

ntxa Zabala...

**rimategia:** Graficas Ona.

**tipi-ttapa** ez du bere gain har-

n derrigorrez, aldizkarian adie-

tako erranen eta eritzien eran-

kizunik.

**kunde Laguntzaileak:** Bera,

iza, Goizueta, Areso, Baztan,

Jazubi, Zugarramurdi eta

arako udalak, Bortzirietako

skara Mankomunitatea,

errekako Zerbitzu Mankomu-

ntea, Zugarramurdiko Akelarre

arte...

## GAURKOTASUNeko GAIA

### 'Soldadutza' lanean: Administrazioak 1.000 lanpostu eskeiniko

#### Lanposturik kendu gabe lana erruz egin daiteke herriotan



Miguel Mº ELOSEGI  
Objetorea. Leizua

Udaletxe batzuk intsumitzen ari direnaldi berean, beste batzuk objetoreak onartzeko erabakia hartu dute. Gai honen aurrean irakurketa ezberdinak egin nitzake neronek. Objektore naizen aldetik, ordezkero zerbitzua bakoitzak bere herrian betetzea oso eroso eta jende askorentzako mesedegarria dela esan dezaket. Herrian bertan ari diren objetoreak beste leku batera mugitzen dirurik ez dute gastatzen eta egiten duten lana herriarentzat izanik motibazio berezia izan dezakete. Beste alde batetik ordea, intsumituen egoera konstante hartu behar da, soldaduskaren aurkako borrokan 'busti' direnak. Intsumituak eta objetoreak dauden herrietan beraz, udalarekin batera adostasuna lortzen saiatu beharko litzateke herriak postura hartzeko. OZS betetzeko objetoreak hartzen dituen Udalak lanposturik ez dutela kentzen ziurtatu behar du. Halere, lanposturik kendu gabe lana erruz egin daiteke edozein herritan eta lanposturik kentzen ez delako ez du garrantzi gutxiagokoa izan behar.

#### Langabeziaz josita, eta gazteak debalde lan egitera behartuz



Oskar GOÑI  
Intsumitua. Bera

Kontzientzia eragozpena mundu mailan ezagutu-tako eskubidea da. Espainiar legediak ez du eskubide hau errespetatzen baldin eta ez baduzu bere txantaia onartzen. hau da; zuk ez baduzu soldaduska egiten, debalde, lana egin beharko duzu. Txantaia legalki ongi antolatua egoteaz aparte, administrazioek, bai Madrilgoak bai bertakoak, plazak eskeiniz bidea zabaltzen diote. Zerbitzu Soziala bultzatzea soldaduskaren aurrean intsumitioak hartu duen indarra nolabait moteldu nahian 'bakezale' poteredunek asmatutako estrategia da. Arazoaren irtenbide gisa saldu nahi duguten hau, arazoa bertze eremutara zabaltzea bertzerik ez du lortzen. Nola onar daiteke langabeziaz josita dagoen estatu batean legeak gazteei lanpostu pilla bat debalde betetzera behartzea?

#### Sindikatu guziak neurri honen kontra azaldu gara tinko



Julen MITXELTORENA  
LAB. Baztan.

Mila lanpostu horietatik 500 hilabete honetan jarri nahi dituzte; bertzeak bertze 96 suhiltzaile, 130 Hezkuntzan eta 120 Osasungintzan. Nafarroan 25.000 lagun baino langabezia daudenean, nondik eta nola ater behar ditu Gobernuak lanpostu horiek? Edo, 1.000 langile langabezira bota behar dituzte? Neurri honekin bi helburu lortzen ditu Gobernuak: Intsumituak eta objetoreak zigortzea eta zenbait lan dohainik eginaraztea. Honek bere arriskuak dakartza; motibazio eta kualifikazio gabeko pertsonak eginen dute lana eta bertzalde, holako kasuetan gertatzen diren abusoak, zenbait funtzionarioen aldetik. Nerretako neurri hau gaitzesgarria da. Holako harrokeriarekin ari dira funtzionatzen Nafarroako Gobernu-kideak. LAB ez ezik bertze sindikatu guziak ere Gobernuaren neurri honen kontra agertu dira tinko. Gazteek, soluzio alaiagoak behar dituzte, holakoak inposatu beharrean. Gu guztion ardura da.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.

• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

### IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40

Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



## BOTA BERTSOA



## Zigor Kode berria

Xabier SILVEIRA

Neurria: Hamarreko Haundia

Ejertzitoei intsumituak bi(d)aliz kartzela zulora iragan dute agintariek orain arteko denbora. Orain legeen aldaketakin horrela gertatuko da: errebeldea jarriko dute euren mundutik kanpora boteredunen zapalkuntzaren jarraipena izango da.

Kode Penaldea eztabaidatzen egon gintezke, alferrik batzuk aurpegi garbiketa bat egin nahi dute bakarrik nahiz eta saldu euren gezurrik komunikabideetatik buruari lau buelta emanda iritzi hauxe daukat nik zein lege berri etor liteke Francoren semeengandik.

## IRAKURLEAK MINTZO

## B ereduari buruz

TTIPI-TTAPAREN 180. zenbakian "Euskara Batzordeen Berriak" gehigarria banatu genuen Bortzirietan.

Gehigarri horren laugarren orrian, "Gibelera goazi" eta "Herriko Plaza" deitutako ataletan Lehen Hezkuntzan Bereduan aritzen diren ikasleek DBHra pasatzerakoan A eredu aukeratzen dutela erraten genuen.

Beraz, ohar honen bidez azaldu nahi genuke informazio hori gaizki emana dagoela, izan ere Lehen Hezkuntzako B ereduko ikasleak oraindik ez baitira DBHra ailegatu.

Bertzalde, jakin dugunez Toki Ona Institutuak hiru ereduak (A, B eta D) eskeiniko ditu eta 96-97 ikasturteko aurrematrikulazioako datuen arabera, Lehen Hezkuntzako B ereduko ikasle gehienek eredu horretan jarraituko dute.

PATRI ARBURUA. BORTZIRIETAKO EUSKARA TEKNIKARIA



## Madril, Entzutegi Nazionala

Otsailaren 26, 27 eta martxoaren 1ean Iñaki eta Patrizio bizilagunak Madrileko Entzutegi Nazionalan epaitu zituzten. Bertan egonda-koak gara eta zuei bertan ikusi eta aditutakoa adie-

raztea da idazki honen helburua. Entzutegi Nazionalan gertatutakoa hitz batekin azaltzeko hitzik egokiena INJUSTIZIA da. Epai-keta guzietan bezala hantxe ziren epaileak, idazkariak, fiskala eta abokatua, bakoitzak bere lana betetzen. Fiskalaren lana akusazioak zehazteaz gain, hauek frogatzea ere bada, baina 3 egunetan ez dugu frogarik ikusi edo aditu, Polizien deklarazioak izan ezik. Polizien deklarazioak eta fiskalaren akusazioen aurrean, abokatuaren defentsak frogarik ez dagoela argi demostratu zuen. Iñaki eta Patrizioren deklarazioak ere aditu genituen, beraien kontrako akusazioekin ez zutela deus ikuste-rik adieraziz eta komisarian sinatutakoa jasan zituzten torturengatik izan zela salatuz. Eta dena alferrik! Horrelaxe joan zen epaiketa, 11 polizi pasa ziren deklarazioak egitera, hainbat perito eta baita mediku forensea ere. Banan bana fiskalaren argumentoak bertan behera gelditu ziren. Ez zegoen froga batere, ezta aztarna digitalik ere, bai ordea, polizien arteko kontrasesan izugarriak. Honen adibide garbia ikusi genuen gure bistan polizi bat desmaiatu erori zenean deklaratzan ari zela, erraten

ari zen gezur eta kontraesanei ezin aurre egin. Adibidez, Iñaki eta Patriziok ez zuten ezagutzen forensea eta honen informeak ez ziren inon ageri. Polizien erratan bi lesakarak poltsak eskuetan zituzten atxilotzerakoan, baina aztarna digitalik ez da agertu. Nola da posible?

Egoera hau ikusita, erreze-lo pixka batekin noski baina nahiko animaturik ateraginen. Handik astebetera sententzia ezagutzera eman zuten eta hara non! 28na urteko zigorra ezarri zieten. Sinestezina! Amorrazioa eta ezintasuna, horixe da sentitzen duguna honelako injustiziaren aintzinean. Sententzia epaiketa egin aurretik paratua zegoenaren susmoa hartu diogu denok, baita zirko batean egon ginenaren sentsazioa. Espainian ez dago Justiziarik euskaldunontzat. Hortxe dabilta, berriz, kanpoan lasai Galkide konfesoak (Danborenea, Vera, Amedo...). Sententzia errekurritua dago baina "Justizia" honetan ezin dugu sinetsi. Ikusiko dugu! (arront oker egotea nahi genuke). Doaiaela hemendikan gure elkartasuna Iñaki, Patrizio eta etikarik gabeko epaile horien injustiziak jasaten dutenekin.

EPAIKETAN EGONDAKO 43 LAGUNAK



ZALDO OSTAUA

LESAKA



# BAZTAN

## ALTZARIAK

### zurgindegia

121 errepede nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak





Diario de Noticias 96-V-17

«Leader I programako dirua Europar Batasunatik soilik zetorren, orain ordea, errekurtsioak Europar Batasuneko Azpiegitura Fondoetatik eta Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik datoz»  
**Jose Maria AIERDI**  
 CEDERNA-GARALUREko lehendakaria  
 Diario de Noticias 96-V-17


argitaratzen dugula». **Xorroxin Irratikoak**  
 D.Noticias 96-V-17

«Untxi-hazleon arazorik haundiena untxi haragiaren eskeintza eta eskaria parekatu egotea da. (...) Bertzalde, etxekoandre moderno-arentzat haragi hau ezezaguna da. Datuen arabera, pertsona bakoitzeko 2 kg. kontsumitzen dira urtean»

**Jose Luis TAINTA**  
 Lesakako untxi-hazlea  
 Ardatza 96-IV-26

«Animaturik gaude, batez ere kontuan hartuz eskualdeko Rigor Mortis taldearen lehen grabaketa

- ◆ **Bizitzeko, baserria edo karrika?**
- ❖ Herritik urruti ez badago, baserria.
- ◆ **Kirolari baten izena?**
- ❖ Inaxio Errandonea.
- ◆ **Dantzatzeko, jota edo baltsa?**
- ❖ Biak izugarri gustatzen zaizkit.
- ◆ **Zein erranen zenuke dela zure bertudirik haundiena?**
- ❖ Ez dut uste haundirik dutenik.
- ◆ **Eta defektoa?**
- ❖ Pazientzia gutti eta perezoso xamar izatea.
- ◆ **Zein bidai eginen zenuke gustura?**
- ❖ Bertze kontinente batera izanez gero, edozein.
- ◆ **Herriko bestak edo kanpoko herrietakoak?**
- ❖ Gustatu herrikoak baina kanpokoetan pasatu dut beti hobekiago.
- ◆ **Alkate bazina, zeri emanen zenioke lehentasuna herrian?**
- ❖ Frontoia egiteari.
- ◆ **Eta gobernuko presidentea bazina?**
- ❖ Gazteentzat lanpostuak sortzeari.
- ◆ **Besta egin edo mendian ibili?**
- ❖ Besta bakan, gainekoan mendian ibili.
- ◆ **Bakarra edo lagunekin?**
- ❖ Nahiago dut bakarra ibili.



**Jose Mª ITURBIDE**  
 CSI-ko Erretiratua Igantzi

**ROMANO dekorazioak**  
**PINTURA ETA PAPEREZTATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU**

- ☛ Zolak jartzen ditugu:
  - Kortxoak
  - Moketak
  - Parketa
  - Sintasola
- ☛ Gure kolokazio tailerra daukagu
- ☛ Komertzioen errotulazioa

*Aurrekontuak konpromezurik gabe*

Legia I • Tel. 631137-63094! • **BERA**

**OKANE**  
**HARATEGIA • URDAITEGIA**  
 Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

**E D A R I A K**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
 Tel.- Fax: 948. 63 10 27



## II. Antzerki Gazte Ihardunaldiak burutzen ari dira egunotan

Lamixine Antzerki Tailerrak eta Udalak antolatu ditu eta lanak Kultur Etxean antzesten dira

KRISTINA BOAN

'Mugaz gain' izenburupean, Berako II. Antzerki Gazte Ihardunaldiak antolatu ditu Lamixine antzerki taldeak, Berako udalaren laguntzaz. Asteartean, maiatzaren 21ean Donostiako talde batek 'Frankenstein', Bermeoko Institutuak 'Romantigoria' eta Rikardo Baroja ikasitexeko antzesleek 'El Fantasma del castillo' lanak eskaini zituzten Kultur Etxeko oholtza gainean. Asteazken goizean Tantarumairu antzerki tailerrak 'Korbata saltzailea' eta Jesusen Bihotzeko Antzerkilariak 'Ilargira daraman zubia' eskaini dute eta ortzegunean, goizeko 10etan Hendaiako Antzerkilariak taldeak 'Halloween gaua' eskainiko du, Labiaga ikastolak 11etan 'Banbini Zirkoa' eta Irain eskolak, arratsaldeko 3etan 'Errementariaren Artzaintxoak'.



Lehen aldiz antolatutako Gazte Jokoez sekulako arrakasta izan dute. Ehun lagunetik goiti aritu dira, hamabi taldetan banatuak. Argazkia, eski erraldoien laisterketa hasi aitzinekoa da. Gero izan ziren kontuak. GOIKO

### San Jose Zahar Etxeko ekipamendua osatzeko 31 milioi t'erdiko kreditua eskatuko du Udalak

Gaur egungo erresidentzia termiten eraginez egoera kaxkarean dagoela kontuan hartuz, San Jose Zahar Etxe berriaren ekipamendua lehenbaitlehen egin behar dela usate du Udalak. Aurrekontuan, ordea, ez dago horretarako dirurik

eta 31.623.783 pezetako kreditua eskatuko du Udalak. Diru hori Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate sailaren 25,3 milioiko dirulaguntzarekin eta Zahar Etxeko Patronatoak emanen duen 6.324.783 pezetekin estaliko da. Kreditua

ahobatez onartu ondotik, orain zuzeneko kontratazio bidez eginen dira erosketak.

Erresidentziak 50 lagunendako lekua du eta bere buruaz baliatzen direnak nahiz laguntza behar dutenak ere hartuko ditu bere lau solairuetan.

ttipi-flash

- ♦ **Josu Unzion** preso politikoa maiatzaren 17an epaitu dute Madrilgo Entzutegi Nazionalan. Dagoeneko ia bi urte darrazki kartzelean.
- ♦ **Uxanek** hainbat ekitaldi antolatu ditu asteburu honetarako, Nafarroako Aspaceren 25. urteurrena ospatuz.
- ♦ **100.000** pezeta bideratuko ditu Herriko Etxeak Erakunde ez Gubernamentalei (ONG) laguntzeko. Diru hori hiru zatitan banatuko dute Mugarik Gabe erakundeak Kolonbiako proiekturako, Sodepaz-ek El Salvadorreko proiekturako eta Askapenak Kubako proiekturako. Kubak jasaten duen blokeoaren aurka ere agertu da Udala.

**GANIX**  
Tailerrak  
IBILGAILUEN MEKANIKA  
ETA ELEKTRIZITATEA  
FIAT Zerbitzua  
Iturlandeta 9 • © 630669 • BERA

**F. MARITORENA**  
Mendi eta lorategi garbiketak  
Tfnoa.: (948) 63 11 99 - BERA

**LABEZAR**  
© 631076 • BERA

**SAROB**  
okindegia  
SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**BLANCO ANIAK, S.L.**  
MARMOL eta GRANITOAK  
Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerria  
BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052  
IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390



**Lesaka**

# Soldadutzaren Ordezko Zerbitzua herrian egiteko aukera eman nahi da

Herriko Etxeak Kontzientzi Eragozpeneko Zuzendaritzaren erakunde laguntzailea izan gogo du

AITOR AROZENA

Eztabaida luze baten ondotik, Herriko Etxeak Kontzientzia Eragozpenaren Zuzendaritzaren erakunde laguntzailea izatea eskatu du, PNV eta EA-ren aldeko botuekin eta HBren kontrakoarekin.

Modu honetan, Lesakan ofizialki onartuak dauden zortzi kontzientzia eragozleek Ordezko Zerbitzua herrian bertan egiteko aukera izanen dute. HBren ustez, ez da bakarrik kontuan hartu behar zortzi objektore horiei egiten ahal zaien mesedea eta Nafarroa osoko planteamenduekin bat egin behar da. "Bide hau intsumisioa zigortzeko da eta elkartasuneko lana bada, ezin da agindu" zioen HBko ordezkariak, ordaindutako lanpostuak kentzearen arriskua azpimarratuz. Alkateak berriaz, gazte bakoitzak soldaduskaren aitzinean nahi duena egiteko



Saso ezin hobea erakutsi dute herriko sokatilariek eta Euskadiko txapeldun suertatu dira 560 eta 640 kiloko kategorian. 680tan txapeldunorde eta 600tan hirugarrenak izan dira

Arg.: Egin

askatasuna ematearen alde agertu zen eta "kontzientzia eragozpenaren bidea hartzen duten lesakarrei, bere betebeharrak herrian bertan egiteko aukera eman". Zentzu honetan, "Lesakan 8 ez ezik, 15 postu sortzeko ideia dugu eta ez du ordaindutako lanpostuetan inoiz eraginik izanen" erran zuen Etxegaraik.

## Presoen aldeko baraualdia eta kanpaldia burutu dira asteburuan

Ortziralean arratsaldeko 8etan hasi eta igandeko 8ak arte 48 orduko kanpaldia eta baraualdia burutu da Plazan Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Senideak erakundeek antolatuta. Ekitaldia bukatzeko, herrian barna eskualde mailako giza katea egin zen.

Baraualdiak iraun zuen bitartean hainbat ekitaldi burutu dira, batzarrak, solasaldiak, bideo emanaldiak edo lan-tailerrak, bertzeak bertze.

Larunbat honetan, maiatzaren 25ean berriaz, eguerdiko 12etan kontzentrazioa burutuko da Plaza Zaharrean.

*ttipi-flash*

### La 2 milioi pezeta

jasoko dute zenbait herritarrek Nafarroako Gobernutik interes historiko-artistikoa duten etxeak egoera onean kontzeko edo moldaketak egiteko. Francisco Arrupek 883.433, Juan Manuel Rodriguezek 120.000, Asuncion Agarak 598.000 eta Rafael Eneterreak 324.578 pezeta jasoko dituzte.

### Telefonia mugikorrerako

irriti estazio bana ezarriko da Otsango eta Eskolamendi inguruetako herri lurretan.

### Ejerzitoaren

presentzia salatu dute herriko zenbait taldek. Domikon akanpatzeaz gain herrian barna ibili dira armatuta.

**EROSLE**

LESACA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena zugandik hurbilago**

Bittiria, 67 - ☎ 637264

**INAXIO JANARIDENDA**  
Igardetan 9etatik 13etara irekia  
**ASTERO** eskeintza bereziak  
Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESACA

**BEREAU**  
jatexea • Hotela  
Lesakako Bidegurutzean  
Tfnoa: 63 73 82 - LESACA

**TXIRULA**  
Albistur, 39-K • ☎ 627542 • LESACA  
bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 637127  
LESACA



**Etxalar**

# Eskola arteko topaketa eta kanpaldia burutzen ari dira

Eskolaurrekoek ere gero eta gehiago hartzen dute parte

PELLO APEZETXEA

Arantza, Igantzi eta Etxalarko haurrak maiatzaren 7an bildu ziren, Etxalarren oraingoan, txanda berari zegokiolako. Takolo, Pirritx eta Porrotx taldeak herriko plazan burututako saio politan parte hartu ahal izan zuten, beren irakasleekin eta guraso batzuekin.



Arantza, Igantzi eta Etxalarko haurrek gustora irri egin zuten hiru pailazoan gorabeherak ikusiz

Argazkia: Pello APEZETXEA

## UDABERRIKO KANPALDIK

Ikasturtea bukatze-ko egun guti falta dirrelarik, ateraldiak egiten ari dira eskolako haurrak. TTIPI-TTAPA hau etxeratu orduko, ttikienak etorriak izanen dira Zarauztik. Lehen aldiz egin dute gaua kanpoan adin ho-

rretakoak, eta bat ez gainerako guziak joan direnez gero, bai irakasleek eta bai gurasoek ere interesgarri jotzen dutela iduri du haurrak horrela atera-

tzea. Seitik hamabi urte artekoak ekainaren 3, 4 eta 5ean egonen dira kanpoan, Hondarribian. Itsasoz eta airez ibiltzearen berri ikasiko dute, bertze

gauzaren artean, itsasportu eta aireportuan barrena ibiliko baitira. Beti bezala, Bortzirietako bertze eskoletako haurrekin batera joanen dira.

*ttipi-flash*

## Lesakako Beti Gazte

izanen da aurten ere kirolatarako koordinatzailea, aintzineko baldintza berdinetan.

## Udal bilerak

bakanagoak izanen dira hemendik aitzinera, hiru astetik behin. Azken urteetan bi astetik egingetu dira. Bileraren akta idatzi, hartutako akordioei bidea eman eta hurrengo gaiak prestatzeak estu samar bihurtzen du bi asteko epea. Bileraren eguna ortzeguna izanen da.

## Antzerkia ekainaren 2an

Ekainaren lehenbiziko igandean, eguerdian, antzerki saioa ikusi ahal izanen dugu. Arizuko Trokolo taldeak *Liburulariak* antzela eskeiniko du herriko Plazan.

**Deñe**

LENTZERIA  
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Behoko Plaza 8, LESAKA

**XATURETXEA**



JATETXEA  
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA



**HERRIKO  
OSTATUA**  
Jatetxea

Lagun artean  
goxo-goxo  
egoteko  
leku egokia

635290  
ETXALAR



ZURE MODA DENDA MARKARIK ONENEKIN:

- Daniel Hechter
- Caramelo
- Island
- Genfis
- Marithe François Girbaud
- Bonaventure
- Replay
- Diesel
- Guess
- Zone

GONBIDATU ETA GIZONGAIENDAKO TRAJEAK

Fuenterrabia 6, Tfnoa. 943-615815 IRUN



**Igantzi**

# Larunbat honetan izanen da Goizuetarako ibilaldia

Biltoki eta Zahar Etxetik bideratuko dira Guatemalako indigenei eman nahi zaizkien dirulaguntzak

**OSKAR TXOPERENA**

Heldu den larunbaterako, maiatzak 25, antolatu du Biltokik urteroko Goizuetarako ibilaldia. Joan den aste ondarrean izan genituen goizuetarrak Igantzin eta segidan itzuliko diete bisita, giroari hozteko astirik eman gabe.

## Indigenei laguntza

Gogoratuko dugu indigenei botikak bidali ahal izateko udalari Askapenak egin zion eskaera eztabaidatzerakoan PNVko zinegotzi batek herrian diru bilketa bat egitea ikusi zuela aproposagoa. Hori aitzinera eramateko bi ekitaldi egin dira hilabete honetan jendea informatzeko, bata Biltokian eta ber-



San Migelen bisita eguraldi hotzarekin izan dugu aurten. Iparra nagusitu zaigu aurtengo maiatzean

Argazkia: Oskar

tzea Zahar Etxean. Dirulaguntzarik eman nahi izanez gero, bi leku hauetako diru ku-

txetan botatzen ahal izanen da, zertarako den paratuz.

## Eskolako ekitaldiak

Gainean ditugu eskolan ikasturte bukerako ekitaldi nagusiak. Lehendabizikoa, Haurren Eguna, heldu den astean izanen da, maiatzaren 31n. Aurten, egun osoko egitaraua prestatu da, nahiko bete gainera. Erran beharrik ez dago, gurasoek ere egun honetako protagonista izan behar dutela.

Eskurtsioa berriz, ekainaren 11n izanen da. Momentuz, hondartzara joateko asmoa dago -Getarira edo-, arratsaldea Txiki-Parcken bukatuz. Izen ematea, eskolan izanen da. Tenorez mugitu.

*ttipi-flash*

- ❖ **Giltza sorta**  
agertu da Berrizaungo zubi ondoan. Seat markako kotxe baten giltza, bertze bi arruntekin batera. Norbaitek falta sumatu badu berriemaile honengana jo dezala.
- ❖ **Gizarte langilea**  
Gizarte langilea den Itziar Iriartekin egon nahi izanez gero, ekainaren 1etik aitzinera goizeko 11k baino lehen eskatu beharko da txanda 635036 telefonora deituta.
- ❖ **Akats zuzenketa**  
Akats ttiki bat izan genuen Herriko Etxeko azkeneko aktaren berri ematerakoan, aho batez onartu baitziren 1995eko kontuak, abstentziorik gabe beraz.

**B RADIO BIDASOA** **CANAL banatzailea**  
Tel. eta Faxes: 630377 • BERA

**ZALAIN JATETXEA**  
Zalain Auzoa  
☎ 63 11 06  
**BERA**  
EGUNEKO MENUA ETA KARTA  
**Boda eta banketeak ematen dira**

**GRUPO ZURICH**  
**ASEGURO OROKORRAK**  
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

**BIDASOA OPTIKA**  
**OPTIKO OPTOMETRISTAK**  
Nafarroa Ibilbidea, 21  
Tfnoa. (943) 63 01 93  
IRUN

- IKUSMENAREN AZTERKETA OROKORRA
- UKIPEN LENTEEN ADAPTAZIOA
- HAURRENTZAKO IKUSMEN TERAPIA
  - Estrabismoa
  - Begi Alferrak

**J. RAMOS**  
Zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditut  
☎ 631342 BERA • ☎ 637172 LESAKA





# Herriko ordezkariak zabala joan zen Aramaion UEMA Eguna

Bertan, herrikoen herri kirol saioa eta Otsarrakoak gazta egiten ikusi ahal izan zituzten

GARBIÑE ETA ELIXABET

Maiatzaren 5ean Aramaion ospatutako UEMA eguna autobusa ateraz zen Arantzatik, 40 lagunekin, hain zuzen. Herrikoen herri kirol erakustaldia eta Otsarrakoak gazta egitera eraman zituzten ikusgai. Goizean goiz ateri, Aramaion bazkaldu eta ilunabarrean bueltatu ziren. Hagitz ongi pasatu omen zuten, aspertzeko astirik gabe, ekitaldi aunitz baitzeuden (dantza, antzerkia, erakusketak, Maixa eta Itziar...).

## Kanpaldiak

Urtero bezala, ikasurte bukaera iristen ari dela eta kanpaldiak ere hasi dira. Maiatzaren



Maiatzaren 4an ospatutako Nafarroako herri kirol txapelketan Arantza suertatu zen txapeldun. Proba konbinatuan parte hartu zuten eta ederki aritu ziren. Hagitz kontent zeuden beraien txapela, kopa eta dominekin

20an lehen hezkuntzako haurrak Zaurutera joan ziren. Beraienkin batera bertze lau herrietako haurrak joan ziren, beraz bortziritar guztiak elkarrekin. Gau bat bertan pasatu eta maiatzaren 21ean bueltatu ziren. Bertzalde, lehenengo mailatik bortzgarren

Argazkia: Elixabet Iturria  
maila bitarteko neska-mutikoak ere kanpaldira joanen dira, hauek ere Bortziritako bertze eskoletakoekin batera. Hondarribian hi-

ru egun pasatuko dituzte ekaina hasieran.

## Pala txapelketa

Apirilaren 30ean Ekaitza elkarteak antolatutako pala txapelketa hasi zen. Momentuz, antolatzaileek erran dutenez, hagitz ongi doaie, nahiz eta hasierako egunetan pilotariei kosta egin zaie frontoira hurbiltzea, beraien partiduak jokatzerara. Partaidetza zabala du txapelketa eta partiduak bakarrik asteburuetan jokatzen direla kontuan hartuz luzerako izan daiteke.

Bertzalde, eskolarteko pilota txapelketa bukatu da. Herriko haurrek aparteko emaitzik lortu ez badute ere, inportanteena parte hartzea zen.



Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Matrazkiak
Pilareak	

'Abajardindoa' Maiztoa  
Zahar antzekoa Txapela

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK



ALBERGIA  
JATETXEA

☎ 634179  
ARANTZA



Lore eta landareak  
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
LESACA

PIKABEA  
Molinero drogerian galdetu

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • BERA

BOTXO  
ostatua

Tfnoa: 63 00 52  
Zalain Auzoa, BERA



Altzate, 19 • 630786 • BERA



# 112 milioi t'erdikoa izanen da aurtengo udal aurrekontua

Inbertsiorik haundiena Arrutela, Ordonborda eta Errekaldeko pistak moldatzen egingen da



**IXABEL ETA JOSUNE**

112.645.696 pezetakoa izanen da Herriko Etxearen aurtengo udal aurrekontua, azken batzarrean ahobatez onartu zenez.

Inbertsio ezberdinetarako 38.600.000 pezeta bideratuko dira, gehiena Arrutela, Ordonborda eta Errekaldeko pistak moldatzeko (27.600.000 pezeta). Soldatetan 11 milioi t'erdia gastatuko dira. Diru sarrerei dagokienez, pisten konponketak 19.320.000 pezetako dirulaguntza jasoko dute Nafarroako Gobernutik.

### Senideen mozioa onarfua

Senideak, euskal



Joan den urteko Trinitate Eguneko argazkia, Arretzekoborda baserriaren aintzinaldean

Artxiboa

preso politikoaren lagun eta familiakoak biltzen dituen erakundearen mozioa ahobatez onartu zuen udalak. Honela, presoaren oinarritzko eskubideak erabat errespetatzen eta Euskal

Herrian bil daitezkeen eskatuko du Herriko Etxeak. Eraberean, baldintzapeko askatasunaren berehalako aplikazioa eskatu da, inolako txantairik gabe. Udal batzarrak onetsi-

tako mozio hau Nafarroako Giza Eskubideen Batzordera igorriko da.

### Mendaur Eguna

Ekainaren 2an os-

patuko da Trinitatera joateko eguna eta sunbildarrek, urtero bezala, egun horretako ohi-tura beteko dute.

Mendaurerara joaten den talde bakoitzak leku ezberdinetan egiten dute beraien bazkaria. Udaletxeko jendeak Arretzekoborda baserriaren inguruan egiten dute otordu hori.

### Telebista

Lehen Antena-3 eta Tele-5-aren seinalea Bulatxikiko antenatik hartzen genuen, orain berriz Askinetik. TB kate hauek ikusteko norberak bilatu behar ditu kanaleak. Bertzalde, Bulatxikitik kanale horien ordeztu Eurosport eta frantziar telebistako kate bat paratu dituzte.



## SANTAMARIA Jatetxea

Obrak irauten duten bitartean sarrera gibelesko aldetik. Asteburuetan itxita dugu

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

## BELARRA Jatetxea

Bertako jakietan espezializatuak

Amezitia 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE



## TELLETXEA MOBLEAK

### Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE



**Malerreka**

# Kukumiku kultur lehiaketa dagoeneko hasi da

Hemezortzi bikotek parte hartuko dute hiru kanporaketetan, Donezteben ekainaren 8an jokatu den finalaren bila

**TXEMA ALDABE**

Langarra Malerre-kako euskara taldeak antolaturik aurten II. Kukumiku Kultur Lehiaketa ospatzen ari da. Hamahiru-hamailau urteko gazteei zuzendua dagoen lehiaketa honetan 18 bikotek parte hartuko dute. Iazko edizioak izandako arrakasta ikusirik gaztetxoak errax animatu dira.

**FINALA DONEZTEBEN**

Hiru kanporaketa izanen dira, bakoitzean sei bikote ariko direlarik lehia bizian; lehenbizikoa joan den larunbatean jokatu zen Eratsunen, bigarrena larunbat honetan, maiatzak 25, arratsaldeko 6etan Sunbillan eta hirugarrena, berriz, Beintza-Labaienen ekainaren 1ean atsaldako 6etan ere. Azkenik, finala Donezteben ekainaren 8an.

Herrien aukeraketa parte hartzaileen jato-



**Merkatariendako euskara ikastaroak akitu dira**

Afari eder batekin akabila eman diote merkatoriendako euskara ikastaroari.

Hilbeltzan hasi ziren hiru taldetan banatuak, bi euskalduntzen eta bertzea alfabetatzen, euskara ikasi eta hobetu nahian. Astean bi egunez ari-

tuz, 40 ordu pasatxo burutu zituzten ilusioz eta umore onean hamabortz merkatori hauek. Euskara Zerbitzutik zuzendutako "Merkatal munduan euskaraz" izeneko kanpainaren bigarren fasea zen euskara klaseak hartzearena eta

erran behar da Malerre-kako Mankomunitatearen laguntza izan duela. Euskara klaseak, berriz, Malerre-kako Euskaltegian eman dira.

Ea heldu den urtean ere animatzen diren, dendetan euskara aditu ahal izateko.

riari begiratzuz egin da, gehienak Doneztebekoak direlarik. Aurten ere partehartzaile gu-

ziendako sariak izanen dira eta irabazleendako sari kozkorragoak. Sari hauek Donez-

tebeko zenbait komertzioek emanak eta bertze zenbait Langarrak erosiak dira.

**Osasuna eta eskola aldizkaria plazaratu da**

Doneztebeko Osasun Zentroak eskolarekin batera argitaratutako Osasuna eta Eskola aldizkaria plazaratu da. 16 orrialdetan barna, Telebista etxean, Hezkuntza aldatzen ari ote?, Liburuaren Eguna edo Nazioarteko Emakumeen Eguna bezalako gaiak aurki daitezke, bi gurutzegramekin batera.

**Doneztebeko udal tasak onartu dira**

Hiltegiaren erabile-rarako, ardi eta ahuntz buruko 220 pezeta, zeri buruko 1.100 pezeta eta behi buruko 2.900 ordaindu behar dira. Igerilekurako urteko abonua 5.000 pezetakoa izanen da 18 urtetik goitikoentzat, 3.500 pta 12 eta 18 urte artekoentzat eta 1.500 pta 4 eta 12 urte bitartekoentzat.



**AMEZTIA**  
Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE



Elizagibela ☎ 451849

Igandetan goizeko 6etan idekia bokadilloak... ematen ditugu

- ✓ Pintxoak
- ✓ Bokatak
- ✓ Hanburgesak
- ✓ Sandwichak
- ✓ Patata bixiak
- ✓ Patata presituak

*Giro eta musika onaz gozatzeko*



UDA HONETAKO EZKONTZETAKO  
KANPAINA BERRIA HASIA DAGO  
JAUNARTZE EGUNEKO ARGAZKI  
ETA OPARI HOBERENAK

KALE NAUSUA 4 - TEL. ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE  
SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO



**Malerreka**

## Maika Ariztegi iturendarra beti bezain indartsu

Hirugarrena izan zen Iruñeko Maratoi Erdian

IBAN ISASI

Burlata, Atarrabia eta Huarte elkartzen dituen bidean Hiru-herri laisterketa irabazi zuen lasagarrik orain dela aste batzuk, bigarrenari minutu batzuetako alde hartuz. Hau gutti ez bazen, maiatzaren 12an hirugarren gelditu zen Iruñeko Maratoi Erdian, emakumezko senior mailan.

Korrikaldi hau burutzeko ordu bete 21' 11" behar izan zituen, lehenengo emakumeak baino Grace Chebet keniarrarengandik sei minutu t'erdia.



Latsagako Maika Ariztegi laisterkalaria sasoi betean ageri da. Inguru honetako laisterketa gehienak irabazteaz gain, hirugarrena izan da Iruñeko Maratoi Erdian

Artxiboa

Kirol esatari guzien arabera Maika Ariztegi forma hagitzen onean dago eta inguruan burutu diren hainbat probatan gailendu da.

*ttipi-flash*

- ❖ **Urrotzko udal aurrekontua**  
29.154.071 pezeta-koa izanen da 1996ko udal aurrekontua.
- ❖ **Gazteluko ostatua**  
alokairuan eman nahi dute. Hasierako prezioa hilean 25.000 pezeta gehi IVA izanen da eta proposamenak ekainaren 10a baino lehen aurkeztu behar dira Donamariako Herriko Etxean.
- ❖ **Donamariako aurrekontua**  
90.026.167 pezetakoa izanen da aurtun. Inbertsiorik haundiena Herriko Etxea berri-tzea izanen da, 20 milioi gastatuko baitira horretan.

**Arano**

## Herriko kaleen konponketa martxan dago jadanik

Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mendia ere ixten ari dira

XABIER ETA DAVID

Nafarroako Gobernuak emandako subentzioaren laguntzaz, aspaldiko proiektua den bati hasiera eman zaio, herriko kaleen konponketa, alegia. 1910ean egindako iturria kendu eta bertan pasatzen zen bide estua zabalduz hasi dira, gero berriz iturri bera leku berean jartzeko asmoarekin. Baserri batzuetarako bidea ere konpontzen ari dira, kaleetako obretaz ar-

duratzen den enpresa berdinen eskutik.

### Gipuzkoa eta Nafarroako muga ixten ari dira

Dirudienez azien-dak, batez ere ardiak, omen dira Gipuzkoa eta Nafarroa mugatzen dituen mendiak itxi behar honetan arazo nagusi. Arano, Goizueta eta Leitzak Goizuetako Berastegi, Elduairen eta Hernanirekin dituzten mugak dira itxi beharrekoak. Hau dela eta, bai alde batetik bai bestetik arazo eta iritzi

ugarri sortu dira, baina azkenik mendia itxi eta honetan utzi dute auzia.

### Santiagoen antolaketa eta basurde afaria

Apirilaren 20an basurde afaria egin zen Herriko Etxea tabernan 30 bat lagun bildu zirelarik. Bestalde, eta inoiz baino goizago egin diren bost bileren ondorioz, esan liteke herriko festen egitaraua nahiko osatua dagoela. Martxoaren hasiera aldean egin zen



Baserri batzuetarako bidea konpontzen ari dira

lehenengo bilera eta bosgarren hau apirilaren bukaeran egin da,

Santiago jaien antolaketan oinarrituak guztiak ere.



# Baztango

## Euskararen Berriak

Argitaratzailea:  
Baztango  
Euskara Zerbitzua

Laguntzailea:  
Balleko Etxea

Maketazioa:  
ttipi-ttapa



### Balleko Etxea Euskaldunagoa

Hau izan da "Udaletxeetan euskararen erabilera handitzeko kanpaina" egin eta gero, Balleko Etxeko zenbait langileren balorazioa: euskara gehiago erabiltzen da langileen artean; telefonoa euskaraz hartuz gero, erdia baino gehiagok euskaraz galdetzen du; Balleko Etxera joaten diren gehienek ere, aukera ematen bazaie, euskaraz egiten dute, adinduek euskaraz aiseago egiten baitute.

### Kanpaldiak Bidarrain

Arrakasta handia izan du Udalak egindako eskaintza: astebeteko kanpaldia Bidarrain. Plaza izanen duten hogei haurrak aukeratzeko ZOZKETA egin da maiatzaren 14an. Gurasoei abisua eman eta informatzeko bilerak agudo izanen dira.

### Nafarroako Euskararen egoera Demolinguistikoa eta funtzionala

liburuan Rosa Ramos soziolinguistak dio gaur egun, Baztanen, euskararen galera ez dela gelditu helduen artean. Baztanen euskarak hiztunak galtzen ditu: ttikitari euskara etxean ikasi zuten batzuek, gero handitzean, ez erabiltzearen poderioz erraztasuna galdu eta beren burua aiseago ikusten dute erdaraz aritzean. Honelako kasuetan euskarak hiztun bat galdu du, eta honelako kasuak ez dira gutti izan Baztanen.


### Lehen Hezkuntzako Matrikulazioak

■ D Eredua

■ A Eredua

Heldu den ikasturtean lehenbizik eskolatuko diren haurrendako matrikulatzeko epea akitu da. Baztanen matrikulazio hauek izan

dira: 54 D ereduan (euskaraz) eta 5 A ereduan (erdaraz). Lehengo urteetan izan direnen aldean ikusteko:



## Udaleku irekiak

Uztaila eta abuztuan egiteko udaleku irekiak antolatu ditu Baztan Balleko Udalak.

Balleko hiru gaztek, M<sup>o</sup> Jose Goienezte, Fernando Anbustegi eta Itziar Bidegainek KUKUX AISIALDI TALDEA sortu dute. 6-eta 12 urte bitarte-

ko haur baztandar guzietan aukera ematen zaie uztaila eta abuztuan, astean bizpahiru goizetan, aktibitateak egiteko: eskulanak, tailerrak, kirola, txango eta ateraldiak,...

Euskara Zerbitzura (580006) deitu informazio eske.



**MARIANO IZETA**ren Baztango Hiztegi ttipia, zuzendua eta osatua, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak argitaratuko du. **BAZTANGO HIZTEGIA** izena izanen du. Berri handia da, gutti baitira Nafarroako euskalkien gainean egin diren hiztegi arloko lanak (lexikografikoak) eta Marianoren honek adierazten du Baztango eskuaren aberastasun eta berezitasuna.





# Zertan dago euskararen egoera Baztanen?

SOZIOLOGI LANTEGIA enpresak egindako inkesta soziolinguistikoaren emaitzak

Artikulu hau 'SOZIOLOGI LANTEGIA' enpresak egin du bereziki TTIPI-TTAPA aldizkariarentzat. Horretarako, «Euskara Nafarroan zertan den» (1) izeneko ikerketan bildutako datuak erabili dira. Ikerketa hau Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren enkarguz egin zen 1992-94an. Bi helburu bete nahi dira orain artikulu honen bitartez: alde batetik TTIPI-TTAPA banatzen den herrietan euskarak duen egoera orokorra deskribatzea, eta bestetik, herritarrei euren erabileraren berri emateko informazioa.



Balleko Etxean lan egiteko kontrata egiterakoan euskara nahitaezko baldintza bezala eskatu behar dela uste du inkestatuen erdiak

► KONFIDANTZA MAILA	%95,5(σ)
► AKATS TARTEA	± 2,4
► HIPOTESIA	P = Q = %50
► KANPO LANA	
SOZIOLOGI LANTEGIA	
► DATUEN TRATAMENDUA	
	YOLANDA ARANA
	BARBRO PROGRAMA
► IKERKETAREN ZUZENDARITZA	
	CARLOS VILCHES
	JONE COSIN
► BAZTAN (2)	516

## Hizkuntzaren erabilera

Ondoko herrietako datuekin konparatuz Baztango euskaldunek euskara gutiago erabiltzen dute. Famili inguruan erabilera mantentzen bada ere, jeitsiera nabarmenena Osasun zentroetan, Herriko Etxean, ikastetxeetan eta erlijio gizon-emakumeekiko harremanean ematen da. "Mundu guztiarekin solasten du" erantzuna 11 puntu jeisten da eskualde osoko datuekin alderatuz eta %39koa da.

Inkestatuen artean %16ak euskara batua ezagutzen du eta seme-alaben belaunaldian,

berriz, ia hirutik batek batua erabiltzen du. %88ak ordea, ikastetxeetan Baztanaldeko euskalkia mantentzearen alde ageri da.

## Euskara gehienetan etxean eta karrikan erabiltzen da

I. grafikoan nabari denez, euskara gehien bat pribatuki erabiltzen da, etxean batez ere. Halere, erabilera publi-

koa ere garrantzitsua da. Administrazioarekiko tratuan erabilera arras tikia da eta hausnarketa sakon baterako datua da. Bortz inkestatuetatik batek, ahal denean, euskara ez duela erabiltzen dio. Nafarroako Gobernuko administrazioarekiko harremanean apenas erabiltzen da euskara.

ETB-1 ikustea (%77), irratia entzutea (%70) eta

## OHARRAK:

- (1) Datu gehiago nahi izanez gero, kontsultatu liburua: 'Euskara Nafarroan zertan den', Carlos Vilches eta Jone Cosin, Nafarroako Gobernuko Argitalpen Zerbitzua, Lizarran 1996
- (2) Urdazubi eta Zugarramurdin egindako 44 inkestak Baztanen sartuak daude





NAFARROAKO MENDIALDEKO EMAKUMEEN  
LAN INTEGRAZIORAKO PROIEKTUA

## Hurbileko zerbitzuak ematea du helburutzat

**2. GAZTEAK:** 14-15 urtekoek kirola egiten ematen dute denbora libre gehiena. Ondorio hori aterai dute Berako Bigarren Hezkuntzako Toki Ona Institutuko ikasleek inkesta egin ondotik.

**3. EMAKUMEAK ETA LAN MUNDUA:** Cederna-Garalur Garapen Agentzia, Nafarroako Mendialdeko emakumeen zenbait kolektibo lan mundura integratzeko programa jarriko du martxan.

**4. NEKAZARITZA-ABELTZAINNTZA:** Inge-

nieritza genetikoaren arriskuak eta azindak identifikatzeko Europa mailako arau berriak. Berri laburrak.

**6. OIHANGINTZA:** Ilargiaren eragina kontuan hartu behar da oihaneko lanak egiteko orduan. Baratzeko Xokoa.

**7. DIRULAGUNTZAK:** Laguntza desberdinen berri.

**8. ELKARRIZKETA:** Ale honetan Berako Fernando Mikelarena historiagileari.



## GAZTEAK

# Berako Bigarren Hezkuntzako Toki Ona Institutuko ikasle talde baten ikerketaren arabera 14-15 urteko gaztetxoek kirola egiten ematen dute denbora libre gehiena

Berako Toki-Ona institutu-ko, giza eta gizarte batxilergoko euskarako lehen mailako ikasleek ondorengo lefroetan irakurgai izanen duzun matematika lan hau egin berri dute.

Orain dela hilabete batzuk inkesta bat prestatu zuten, 14-15 urte bitarteko ikasleek aste batean nolako ekintzak egiten dituzten jakiteko, eskolako orduz kanpo eta aldi berean zenbat denbora daukaten eskolako lanak egiteko. Hau burutzeko galdera sorta bat prestatu zuten, ekintzak eta orduak eskatuz. Datu guztiak lortu eta gero, interpretazio lana egin zuten. Datuak 3 modutan sailkatu dituzte: sektore diagramaren bidez (gazta itxurakoa), histogramaz (goian dagoen grafiko) eta taula baten bidez.

Goiko histograman ageri denez, denetatik dago. Ikasle gehienak 1 eta 7 ordu bitarteko denbora ematen du astegunetan (ezker aldeko zutabeak), eskolaz kanpoko aktibidadeak egiten, eta gutxiago dira 20 ordu edo gehiagoko denbora dedikatzen diotenak (eskuin aldeko marrak).

Beheko bi sektore-diagrametan zera ikus daiteke; ezker aldekoan, errate baterako, zenbat ikasle dauden ekintza bakoitzean. Eskuinaldekoan



berri, aktibidade bakoitzean zenbat ordu sartzen dituzten ageri da. Erran beharra dago Toki Onako ikasleek datu hauek lortzerakoan beste atal bat jarri zutela "besteak" deiturikoa eta hemen sartu nahi izan zituzten gainontzeko ekintza guztiak. Nahiz eta banaka garrantzi gutxi izan, denak elkartzen badira %12,16 aterako da, eta hori zifra garrantzitsua da.

### Ikasleak:

Eskolatik kanpo egiten diren ekintzetatik jende kopuru gehien duena kirola da, inkestatuen %24,13a. Bigarren lekuan atzerriko hizkuntza nagusitzen da %14,55arekin. Dantza eta musikarekin lotutako ekitaldietan ere gaztetxo

aunitz aritzen dira.

### Orduak:

Denbora gehiena kirolei ematen zaio, %34,5a hain zuzen ere. Arestian aipatu dugun "besteak" eta klase partikularrak, ordu kopuruan parekatuak agertzen zaizkigu %16arekin.

Laburtuz, eskolatik kanpo gehien praktikatzen den ekintza kirola da eta ikasle aunitz biltzeaz gain ordu aunitz horretan aritzen dira.



Bukatzeko, egin dugun ikerketa hau hobe ulertzeko honako datu hauek aztertuko ditugu:

**Bataz-bestekoa = 6,1;** eskolatik kanpo egiten diren ordu guztiak batu eta ikasle guztiei berdin banatuz gero, ikasle bakoitza 6,1 ordu arituko li-

tzateke ikastetxetik kanpoko aktibidadeetan.

**Moda = 4;** ikasle gehienak 4 ordu aritzen dira nolabaiteko ekintzetan, ikasketatik aparte. **Ibiltartea = 27;** eskolatik kanpoko ihardueretan sartzen diren ordu gehien eta gutxienean arteko diferentzia 27 ordukoa da.

**Desbiderazio tipikoa = 5,75;** honek adierazten du baloreak (kasu honetan IEEko ikasleek, klasetik aparte sartzen dituzten ordu kopurua) nola sakabanatzen diren. Desbiderazioa 5,75 izateak, datuak asko banatzen direla (bataz-bestekotik) esan nahi du, hau da, ikasle batzuk ordu asko okupatuak dituzten bitartean, beste batzuk oso gutxi dituztela.





## EMAKUMEAK ETA LAN MUNDUA

**Proiektu honen bitartez, Nafarroako Mendialdeko zenbait emakume kolektiboren lan integrazioa erraztea bilatzen da. Horretarako, lehenik ikastaro zehatzak eskeiniko zaizkie lan berezi bazuetarako prestatzeko, eta segidan, emakumeek lan hoietarako prestakuntza hartu dutenean, euren enpresa muntatzen lagunduko diete.**

# Lan aukerak eskeini nahi zaizkie emakumeen zenbait kolektibori

Proiektua APEF-MYRINA izeneko programan sartzen da eta CEDERNA-GARALUR elkarteak diseinatu eta bultzatu du Nafarroako Mendialdean

**A**rrazoi eta egoera zehatz batzuk direla medio, izan badira lan munduan sartzeko zailtasunak dituzten emakumeak. Proiektu hau emakume hoietan pentsatuta diseinatu izan da.

## Zein emakumerentzat?

Errate baterako, emakume tipologi horretan sartzen dira adinez helduak direnak (25-45 urte), prestakuntza kualifikaturik ez dutenak edo familiar betetzen duten funtzio-arengatik, lanerako aukera bakarra etxeko lanetan aritzea duten emakumeak.

## Zein da eskualdeko errealitate soziala?

Nafarroako Mendialdea eremu arraz zabala da eta populazioa erabat sakabanatua bizi da herri tiki eta baserrietan. Horregatik, zaila da populazioari bere osotasunean gizarte zerbitzu guztiak ailegaraztea. Nahiz eta zonaka eta herriko egon badauden Oinarriko Gizarte Zerbitzuetako langileak, normalean eta aipatu arrazoiengatik, bete gabe gelditzen diren beharrak ere ikusten dira. Horren lekuko dira, adibidez, etxeko lanak egiteko edota haurrak eta adineko pertsonak zaintzeko sortzen diren lanpostuak. Lanpostu hoiak, ghe-



nak izkutuko ekonomiaren menpean sartzen dira, lan kontratu eta aseguratorik gabeko emakumeak enplegatuz. Lan beltza azken finean. Kontsideraio hauei, beste fenomeno orokor bat ere gehitu egin behar zaie; populazioaren bizi itxaropena gero eta haundiagoa da eta, aldibere-

an, gero eta haundiagoa da edadeko pertsonen multzoa.

## Prestakuntzaren edukiak

Hasieran aipatu den bezala, emakume hauei ikastaro zehatzak eskeiniko zaizkie, lan zehatzak egiteko jakin behar dutena erakatsiz, beti

ere, hurbileko zerbitzuen mundu horretan. Horrela bada, honako hauek izanen dira prestakuntzaren edukiak:

- ❶ Gizarte Zerbitzuetako laguntzailea.
- ❷ Etxeko lanetara zuzendutako teknikak.
- ❸ Giza soinaren ezagutza eta zainketa.
- ❹ Osasun-zainketa eta higieena.
- ❺ Ezinduak.
- ❻ Haurtzaintza.
- ❼ Psikologia eta psikiatriaren atarian.
- ❽ Hirugarren adinekoei zuzendutako zentruetan praktikak.

## Enpresak martxan jartzeko laguntzak

Prestakuntza egin ondok enpresa modura antolatuta nahi izanez gero, Cederna-Garalurrek bere laguntza eskeintzen du enpresa egituraketari buruzko informazioa eta aholkuak emanez.

Aipatu, bukatzeko, APEF-MYRINA izeneko proiektu hau Europa mailako 'Now II Ekinmen Komunitarioa' ren barnean sartzen dela, eta Espainia eta Frantziako bazkideak dituela.

Informazio gehiagorako deitu Cederna-Garalurreko telefono hauetara: 580561 (Baztan), 451654 Bortzirriak-Malerraka eta 510009 Leitzaldean.



## ENERGIA



### Leitzako Haize Parkea martxan laister

Nafarroan eginen den bigarren Haize Parkea Leitzan dago eta hasiak dira egiten. 600 Kw.ko 31 generadorek osatuko dute parkea eta iraila baino lehenago bukatu nahi dituzte lanak. Guztira 3.000 milioi pezetako inbertsioa.

## INGURUGIROA



### EHNEren alegazioak Urbasako Ingurune Babestuari

EHNE sindikatua ez dago ados Urbasa eta Andian egin nahi den Ingurune Babestuarekin, nekazarien kalterako izanen dela uste baitu. Sindikatuaren iritziz nekazal probetxamendua ziurtatu beharra dago, eta nekazarien parte hartzea ezinbertzekoa da Ingurune Babestuen gestiorako. Ardatz nagusi horiek harturik zenbait alegazio aurkeztu ditu. Ekologistek, ehiztariak eta alderdiek ere egin dituzte beren alegazioak.

## ITOIZKO URTEGIA



### Nafarroako Gobernuaren laguntza Itoizko langileentzat

Nafarroako Gobernuak, Itoizko urtegia gelditu eta langabezian geratu ziren langile gehientzat lana aurkitu du. Langabezian gelditu direnei berriz, soldata minimoa bermatu die.

## ELIKADURA



### 330 kilo janari jaten du urte batean nafar bakoitzak

INE estadistika erakundeak egindako ikerketa baten arabera, Nafarroako biztanleek 100 kilo fruta, 90 kilo barazki, 46 kilo ogi, 67 kilo haragi eta 27 arrain kilo jaten dituzte banaz bertze urte batean.

# Ingenieritza genetikoaren arriskuak

Ingenieritza honen eragina izugarria da, egunetik egunera nabarmenagoa. Ikerketak eta manipulazio genetikoak aurrera doaz. Noiz arte? Elikagaien ekoizpenerako beti erabili izan dira bioteknologia elementuak, adibidez, ogia egiteko altxagarriak. Baina gaur egun ezagutzen dugun bioteknologia edo ingenieritza genetiko berriagoa da, 70. hamarkadakoa.

Dena dela, ikerketa berri hauek salto haundia suposatzen dute orain arteko teknikekin konparatuz, izan ere, geneekin ez ohizko praktikak egiten baitira, naturan sekulan gertatuko ez liratekeen nahasmenak gertaraziz. Ardieta gizakien geneak jartzea, edota tomatean arrainen geneak aurkitzea normala da. Gero eta animali gehiago manipulatu dira..

Nekazaritzan oraindik nabarmenagoa da. Arroza, artoa eta garia dira gehien manipulatu diren landareak. Erremolaxaren kasuan, belarhilkari batzuen aurkako erresistentzia lortzea da helburua, gero, alor

edo landa guziaz "belar txarren" aurka tratatzeko. Baina teknika hauek ez dira beti nekazarien mesederako, dependentsia sortzen baitute. Multinazionalak bultzatzen dute ingenieritza genetiko, gero beren produktutara lotura lortzeko. Gainera, landak ez ditu beti onartzen ingenieritza genetikoaren aldaketak.

Ingenieritza genetikoak du da asko uzten dituen teknika da. Horien artean az-

pimarratzekoa da galdera hau: inguruko landareak ere kutsa daitezke? Azken ikerketek hori bilatzen hasi dira. Guzti hau esanda bistakoa da naturaren aniztasuna arriskuan jar daitekeela teknika hauekin, ez baitakigu zein izanen diren ondorioak. Interes komertzialak daude. EEBB, EEEK edo munduko erakunde komertzial garrantzitsuenek ez dute deus argitu nahi. Ez dute elikagaien egiazko jatorria plazaratu nahi. Guzi honetan baserritarrak dira kaltetuenak, ezin baitute azaldu bere produkzio ereduak duen aukera: egiazko kalitatea. ■


## Eta hemen?

► Guzi honekin baserritarrak dira kaltetuenak, ezin baitute azaldu beren produktuzeko sistemak duen aukera: produktuen egiazko kalitatea.

## PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK

## ZERRIKUMEA

\* 20 Kilokoa



Azkeneko joera

## ZERRI GIZENA

\* 95-100 kilo artean Pta./K.



Azkeneko joera



# Aziendak identifikatzeko arau berriak

Europako Komunitatetik igorritako legeei erantzunez, Nafarroako Gobernuak martxan jarri berria du dagoeneko txerriak, ardiak, behiak eta aretzeak identifikatzeko kanpaina. Norberak egin beharko du eta ongi egitea ezinbestekoa da laguntzak kobratu ahal izateko. Arau berrien arabera esplotazioaren zenbakia aldatu egingen da, eta lehengo zenbakietaz aparte herriaren zenbakia eta NA hizkiak ere eramanen ditu. Bertzalde, esplotazio liburu berezi bat eguneratua eraman beharko da, aziendak xehe-tasunez kontrolatuko direlarik.

## Aretzeak

Laguntzak kobratu ahal izateko esplotazio liburuan arraza, urruxa edo zezenkoa den eta sortze eguna, hilabetea eta urtea apuntatu behar dira. Bertze leku batetik erosten diren aretze guztiak zenbaki kontrolarekin etorri behar dute, gidan edo dokumentu administratiboetan sortze

eguna ezarriko delarik, gutienez. Gainera, esplotazio liburuan apuntatu egin beharko da noiz sartzen diren azienda berriok eta sorrera adierazten duten dokumentu guztiak gorde egin beharko dira. Guzti hori ez bada betetzen ez dira dirulaguntzak kobratuko.

Behietan, abeltzain bakoitzak identifikatu beharko ditu eta markak ezin izanen dira kendu, galtzen ez diren bitartean. Behiak esplotazio batek bestera pasatu ahal izateko, identifikazioaren aurkezpena nahita nahiezkoa izanen da. Ildo beretik, behi berri bat erosten baldin bada, sorlekutik identifikaturik etorri beharko du.

## Zerriak

Identifikazioa jabeak egin beharko du, krotala edo tautuaia baten bidez, eta marka hori ezin izanen da kendu galtzen ez den bitartean edo baimenarik lortzen ez den bitartean. Behien kasuan bezala, esplotazio batetik bertzera



**Esplotazioaren zenbakia aldatu egingen da eta lehengo zenbakietaz aparte herriaren zenbakia eta NA hizkiak ere eramanen ditu**

pasatzeko aziendek identifikatuak egon behar dute eta dokumentazioan sortze data, ordotsa edo ardia den, arraza eta jatorria jarri beharko du. Zerriak ahalik eta azkarren markatu behar dira, eta beti esplotaziotik atera baino lehenago. Markan esplotazioaren zenbakia jarri beharko da eta beste nazio batera badoa marka berezi bat eramanen du. Zerriak bertze nazio batetik ekartzen badira hila-

betea baino lehenago markatu behar dira, jatorrizko zertifikatuak jasoz.

## Ardiak

Ardien eta ahuntzen kasuan ere identifikazioa norberak egin

beharko du, krotala jarriko zaielarik. Marka galdu edo irakurtzen ez denean bakarrik aldatuko da. Ardiak edo ahuntzak hiltegiara edo bertze lekuetara eramateko marka paratzea beharrezkoa da. Esplotaziotik atera edo urtea bete baino lehenago markatu behar dira azienda hauek. Ardiak edo ahuntzak bertze nazio batetik ekarriz gero hilabetea baino lehen identifikatu behar dira. ■

BEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK •

## PRETZE GIZENA

● IDIKKOAK (Pta./Kg. kanal) 1 koo  
● URRUXAK (Pta./Kg. kanal) 1 koo



Azkeneko joera

## PRETZE TTIKIAK

● NABARRAK  
● MESTIZOAK 15 egun inguruko IDIKKOAK



Azkeneko joera

## UNTXIAK

**Aspaldiko partez prezioek goiti egin dute**

Azkeneko lau urte hauetan, krisialdi sakona izan da sektore honen ezaugarri nagusia. Untxi produktoreek kostoen azpitik saldu beharra izan denbora luzean. Oraingoan, ordea, prezioa goratzen hasia da, 250 pezeta/kiloa. Badirudi, Ingalaterrako behi eroen gaitzak Europako herrialde gehienetan untxi haragiaren kontsumoa nabarmenki handitzea ekarri duela.

Hala ere, Nafarroako untxi hazleen %80a biltzen duen ASCUNA erakundeko Jose Luis Tainta lesakarraren erranetan, "irabaziak aunitz



murriztu zaizkigu azken sei urteotan. Krisia 1993an hasi zen, haragi kiloa 29,1 pezeta jautsi zen eta 228 pezetatan gelditu zen. 1994an 225,5 pezetara jautsi zen, 1988an baino 20,7 pezeta guttiago".



## OIHANGINTZA

# Ilargiaren eragina kontuan hartu behar da oihaneko lanak egiteko orduan

**B**etik ilargiaren eragina kontutan hartua izan da oihaneko lanetan eta bertzelako gauzetan ere.

Lehenago kontuak dira askorentzat, baina gaur egun dirautenak eta jendeak kontuan hartzen dituenak egurra mozteko, landatzeko, kimatzeko, etab... Inguruko herrietan egurra mozteko orduan kontuan hartzen da su-egurretarako edo bertzenaz etxe edo teilatuak konpontzeko den.

Su-egurak edo etxerako loteak bago egurrez egin ohi dira, eta beren sasoi hoberena gorapena da, ilargia goiti doalarik. Esaera zahar batek dioenez, abuztuko Ama Birjina eta iraileko Ama Birjinaren tartean moztu egin behar da, baina beti gorapeanean. Horrela moztuz gero, egur ona eta sana lor-tuko da.

Bagoa bezalaxe, gerezia ere ilargi horretan moztzen ahal da, baina gerezia gehienetan materiala edo zuraje gisara erabiltzen da. Haritza berriz, beherapenarekin moztu behar da, nahiz egurra nahiz materiala ateratzeko; modu honetan egurra gogorragoa eta finagoa ateratzen da. Gero, zurezko zubiren bat egin behar baldin badugu ona omen da beherapenean mozte. Horrela zura ez da ustelduko eta ez du irristatuko: izanen dugu zubiaren gainetik lasai ibiltzerik.

## Bertze lanetan ere bai

Badaude murrizteko egunak, edo desbrozatzeko edo jorrazteko; denetan ilargiaren eragina kontutan izan behar da. Adibidez, zuhaitzak beherapenarekin



Komeni da ongi ikastea nolakoa den eragina arbol klase bakoitzean

## Ilargiaren eragina kontuan hartuz gero, iraupen eta kalidade hobeko zuhaitzak lortuko ditugu

kimatu behar dira, orduan baita guttien sufritzen duten momentua; hori bai, beti neguan.

Gero ere jorrazteko egun aunitz izaten dira, baina mindeitzea —mindegia— garbi xamar kontu nahi badugu, ekainaren 18a egun aproposa omen da, eguerdiko 12ak arte, beti

ere eguzkiaren ordua kontuan hartuz. Egun honetan zikina moztuz gero edo jorrazteko gero, uda guztian ez omen da horrelako zikinik ateratzen.

Ilargiak guk uste dugun baino eragin haundiagoa dauka eta, hori kontuan edukiz gero, gauzak iraupen eta kalidade hobea izanen dute.

Polita litzateke denon artean tenore onak zeintzuk diren biltzea. Zuek ezagutzen dituzuenekin Lurrara idatzi edo deitu.

• J.M.J. •



## BARATZE XOKOA

### GOMENDIOAK

- ▷ **Fruitondotan egin behar diren zainketa lanak**  
Barne aldera sortu diren adaxkak kimatu egin behar dira arbolak eguzkia behar bezala hartzeko. Hostoak horitzen hasi badira, seinale burnia falta dutela. Komeni da sulfatadora batekin burnia duen ongarriren bat botatzea hostoetan. Fruitu haundiagoak nahi badituzu, txarrenak bakandu egin behar dira. Arbolaren azpian pinu azalak botatzea ere komenigarria izaten da belarrak ez sortzeko.
- ▷ **Zinaurriek kalterik ez egiteko**  
Kalterik haundiena landare ttikietan egiten dute zinaurriek. Landare-haziak oso gustokoak izaten dituzte, eta hortaz, alfer lana da zinaurriak dauden tokian deus ereitea. Komeni da lehendik zinaurriak uxatzeko sistemaren bat erabiltzea (zinaurritegietan tomate hostoak jartzea, ur beroa botatzea...).
- ▷ **Etxe barneko landareak**  
Sasoi egokia da etxe barneko landareak pixkanaka kanpora ateratzeko eta behar izanez gero lurraz aldatzeko. Bidenabar, komeni da hondatuta dauden hostoak kendu eta hurrengo negurako apaintzea. Larrosei ia egunero begiratu behar zaie. Zorriak kendu, ongarriztatu, txertoaren azpitik ateratzen diren adaxkak kendu eta loreak, tamaina politagoa dute laugarren hostotik moztu ezker.

### LABUR

- ▷ **Foresna-Zurgaiak bidaia antolatu du FOREXPOra**, Frantziako hegoaldean Soustons hirian egiten den ferriara. Ingurotako ferriak inportanteena da eta ekainaren 5, 6 eta 7an egonen da zabalik. Foresna-Zurgaiak ekainaren 7rako antolatu du joan-etorria egiteko autobusa. Interesatuak deitu 151501 telefonora.
- ▷ **Plantatzeko sasoiak bukatu da** aurtengoz. Gure herrietan hainbat hektarea oihanberri dira, eta gehienak, lur komunalak dira.
- ▷ **Suaren eragin negargarria** aipatu behar da berriz ere; zona mailan sute aunitz ikusi baitugu, eta gainera, plantazio berrietan eta oihanetan eremu dexente hondatu dira.



## EGUTEGIA maiatza-ekaina

### BARATZEAN

#### 1.- Erein

- Azenarioak, kalabozinak, kalabazak, letxuga, lekadunak, azaloreak, azak, azelgak, eskarolak...

#### 2.- Landatu

- Letxugak, tomateak, piperrak, tipulak, porruak, azak, azelgak, erremolatxak...

### LORATEGIAN

#### 1.- Landatu

- Daliak, azuzenak eta patata duten landareak. Petuniak, klabin txinoak eta urteko landaretxoak ere landa daitezke.

## ZORRIAK HILTZEKO ETXEKO ERREZETAK

Seguraski zorriak izanen dira gure baratzean gehien agertzen diren izurriteetatik bat. Hauek akabatzeko produktu kimiko aunitz daude merkatuan, honelakorik erabili nahi ez baduzu, proba ezazu errezeta hauekin.

- Litro bat uretan, xaboi kozkorra edo eskama-xaboa (lau kutxare), 90<sup>o</sup>ko alkohola (bi kutxare) eta izurritea handia bada, lau zigarrokinekin egindako mazeratua (zigarrokinak+ur garbia) erantsi. Kontuz! bakarrik izurrite handia denean erabili, zigarrokinak nikotina du eta hau oso toxikoa den alkaloidea da.

- Litro bat uretan, 25 gr. osinekin (zainak eta haziak



kenduta, landare osoak balio du) infusio bat egin. Hozten denean erabili.

- 150-300 gr. xaboi (pastilla, eskama) urtu 10 litro uretan.

- Ur beroan 40 gr. xaboi urtu, 125 zk. petroleoa erantsi eta 25 l uretan nahasi.

## Ikastaroen gestioa udalen esku

Berriki arte 'EPAko ikastaroak' bezala ezagutzen zirenak aldaketa nabarmenak izanen dituzte heldu den urteik aitzinera. Aurrerantzean udalek, elkarteek eta kolektibo desberdinek egin beharko dute ikastaro hauen gestioaren kargu. Finantziarioaz Emakumearen Institutua arduratuko da aurrerantzean, eta proiektuek duten kostearren %75a arte diruz laguntzen ahal ditu. Gainerako %25a udal edo elkartearen bizkar.

## DIRULAGUNTZAK

Informazio gehiago: CEDERNA-GARALUR

Baztan ☎ 580561 Bortziriak-Malerreka ☎ 451654 Leitza ☎ 510009



### LANA

#### Autonomo gisa hasi nahi duten langabeentzat.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 96/92 zenbakian argitaratu zen (92/08/10). Foru Dekretua 259/92. 400.000 pezetako dirulaguntza. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.

#### Lan esperientziarik gabeko langile titulatuak kontratatzeke dirulaguntzak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 96/92 zenbakian argitaratu zen (92/08/10). Foru Dekretua 259/92. 200.000 eta 350.000 pezeta arteko dirulaguntza kontratu iraupenaren arabera. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabea.

#### Lanpostu berriak sortzeko Kooperatiba eta Elkarte Anonimo Laboraletan (S.A.L.)

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialaren argitaratu zen (86/02/27). 86/02/21eko Agindu Ministeriala. 250.000 eta 500.000 pezetako dirulaguntza langile bakoitzeko bere egoeraren arabera. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.



### NEKAZARITZA

#### Nekazaritza ekologikorako laguntzak. Alor horretan prestatu nahi duten pertsona eta elkarteentzat dirulaguntzak.

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialaren argitaratu zen (95/02/08). 95/01/20ko 51/1995 Agindu Ministeriala. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.

#### Emakumeak enplegatuko dituzten industria lantegi berritzaileendako dirulaguntzak.

Europako Komunitadetik bideratutako dirulaguntza. Proiektu bakoitzeko 4.000 eta 10.000 ECU bitarteko dirulaguntza.

#### Emakumeak presentzia ttikia duten lanbideetan, kontratazio laguntzak enpresentzat.

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialaren argitaratu zen (86/02/21). 86/02/27eko Agindu Ministeriala. 250.000 pezeta edo gehiagoko dirulaguntza kontratu bakoitzeko. Deialdi iraunkorra da eta muga egunik gabekoa.

#### Ezinduak kontratatzeke dirulaguntzak.

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialaren argitaratu zen (86/02/27). 86/02/21eko Agindu Ministeriala. Dirulaguntzak: kontratu iraunkorretan 2.000.000 pezeta gehienez kontratu bakoitzeko; aldi baterako kontratuaren Aseguru Sozialaren %100a eta soldata minimoaren %50a eta autonomoetan 400.000 pta. Deialdi iraunkorra.

#### Ingurugiroa zaintzen lagunduko duten nekazal produktioentzat laguntzak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren argitaratu zen (95/06/09). Maiatzaren 22ko 113/1995 Foru Agindua. Deialdi iraunkorra eta muga egunik gabea.

#### Basabereek egindako kalte-ordainak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren argitaratu zen (95/06/12). Maiatzaren 19ko 589/1995 Foru Agindua. Deialdi iraunkorra eta muga egunik gabea.



### ERREKAK

#### Erreka bazterrek garbitzeko dirulaguntzak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren argitaratu zen (93/03/17). Otsailaren 24ko 117/1993 Foru Agindua. Deialdi iraunkorra eta muga egunik gabea.



### INDUSTRIA

#### Ttiki eta Erdi Tamainako Industrien Garapenerako Laguntzak.

Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialaren argitaratu zen (95/05/23). Maiatzaren 8ko Agindua. Deialdi indarrean 1999 arte.





## AZKEN ORRIALDEKOAK

**Etxeak berritzeko laguntzak**

Interes historiko-artistikoa duten etxeak zaharberitzeko edo egoera onean mantentzeko dirulaguntzak ematen ditu Nafarroako Gobernuo Hezkuntza, Kultura eta Gazteri Sailak. Aurten 55 milioi pezetatik goiti banatu ditu herrialde osoan.



Teniente etxea  
Bertizko Parkea

**Parke Naturalak**

Natur Guneen Lege Proiektua eztabaidatzen ari dira Nafarroako Parlamentuan. Lege horretan, Nafarroa mailan hamar Natur Parke izendatzea aurrikusia dago, hoietakoz batzuk inguru honetan; Belate eta Quinto Real. Gogoratu behar da, gaur egun Nafarroan dagoen Natur Parke bakarra Bertizkoa dela. Bestalde, Legearen eztabaidan gatazka gehien sortzen ari duen atala gestioari dagokiona da

**Turismoa bultzatzeko diruak**

Nafarroako Gobernuak 149 milioi pezeta inbertituko ditu aurten Nafarroan turismoa bultzatzeko. Dirutza horretatik 46 milioi udalei luzatuko die interes turistikoak duten proiektu eta egitasmoak bultzatzeko; 80 milioi Partzuergo Turistikoentzat izanen da; 5 milioi formakuntzarako; 3 turismoa promozionatzeko eta beste 15 milioi, hostalaritza munduko elkarte profesionalendako.

# «Baztan-Bortziriak-Malerrekako Ikerketa Zentrua antolatzekeo deia luzatu nahi dut hemendik»

Fernando Mikelarena Peña beratarrak *Demografia eta Familia Nafarroa Tradizionalean* izeneko liburua argitaratu berri du. Liburu hau bere Doktorutza Tesi-an oinarritua dago eta bost kapitulutan banatua.

Lehenbiziko kapituluan, sarrera gisa, garai hartako Nafarroaren aspektu desberdinen egokiera aztertzen du, testuinguru geografikoa, sozioekonomikoa eta hizkuntz eta kultura mailako testuinguruak elkarlotuz, eta batez ere, egitura sozioekonomikotan erreparatuz.

Bigarren kapituluan, 1786-1900 tarteko populazioaren bilakaera jorratzen du. XIX. mendean Nafarroa izan zen Espainia mailan gutien hazi zen lurraldea eta horren arrazoi ugariak aztertzen ditu xeheki.

Hirugarren kapituluan, 1786an Floridablancak egindako errolda hartzen du lan-tresnatzat. Aldiberean, Lesaka, Olazagutia eta Ziraukiko familia banaren bilakaera aztertzen du, ondorio interesgarriak eskuratuz.

Laugarren kapituluan, Nafarroako eskualde desberdinetako 12.000 familia aztertzen ditu, eta ondorio gisa, aurkitzen du harremanik familia tronkalaren geografia eta XVI. mendean akaberan euskarak zuen muga geografikoaren artean.

Bukatzeko, bosgarren kapituluan sakonago jorratzen du familien onda-



## Fernando MIKELARENA

Berako Historialaria

1985EAN HISTORIAN LIZENTZIATU ETA 1992AN DOKTORUTZA ESKURATU ZUEN UNEDEN 'DEMOGRAFIA ETA FAMILIA NAFARROA TRADIZIONALEAN' IZENENKO TESIAREKIN. HORTAN OINARRITUA, BERRIKI, LIBURUA ARGITARATUA DU. GAUR EGUN ZARAGOZAKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA DA ETA IKERLARI NEKAEZINA.

## Ikerketa Zentrua

### Baztan, Bortziriak eta Malerrekako Ikerketa Zentru bat martxan jartzeko deia luzatu nahi duzula eta, zer eginkizun izanen luke?

Gure iragana, oraina eta etorkizuna aztertzea izanen zen Ikerketa Zentru honen eginkizuna. Talde horren barrenean, nire ustez, lekua izaten ahal dute historialariek, antropologoek, soziologoek... arlo desberdinetako ikerlariak. Azken finean, garrantzitsuena lan-dinamika bat sortzea da, eta horren inguruan bilduko litzatekeen kolektiboaren esku legoke egin beharreko lanaren lerro nagusiak markatzea.

Lan eta ikerketa hoiendako aplikazio bat, errate baterako, irakaskuntza mailakoa izaten ahal da. Ikasketa Planetan aipatu ohi den kontua baita Tokiko Historia lantzearena, baina, nik dakidala, deus gutti egiten da zentzu horretan.

sunak ondokoei pasatzeko dagoen sistema tronkala eta horren inguruko xehetasun guztiak.

*Demografia eta Familia Nafarroa Tradizionalean*, Fernando Mikelarenak ar-

gitaratutako lehen liburua da. Bere aztertzaile lanaren ondorioz, halere, artikulua ugari argitaratu ditu argitalpen espezializatuetan eta baita prentsan ere.

### Landa Lurraldeari buruzko aldizkaria

**Argitaratzailea: Lurra** Kultur Elkarte • Herriko Etxeko Plaza, 1

• 31780 BERA Ale honetan parte hartu dute: Berako Toki Ona Institutuk ikasle-irakasleek, Arantxa Arregik, EHNE Nafarroako teknikoek, Juan Kruz Iriartek eta beste zenbaitzuk. **Maketazioa eta Banaketa:** ttpi-tpa Inprenta: Graficas Ona **Tirada:** 6.200



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



musika aditu (%30) dira euskararekin lotuta gehien egiten diren ekitaldiak. Xorroxin da gehien aditzen den irratia, euskaldunen %63ak entzuten baitu (euskarazko programazioa emititzen duten irrati guztien artean %80ko entzulegoa du Xorroxinek). Euskadi Irratia da bigarrena audientziari dagokionez (%33, Euskadi Gaztearen %8a barnean delarik). Eguneroko prentsa euskaraz irakurtzen dutenak, ordea, %17a bertzerik ez dira.

**Heren batek erdaraz hasten du telefono bidezko kontaktua**

Idatzi elebidun bat hartzerakoan %13ak bakarrik irakurtzen du beti euskarazkoa. %43ak euskarazkoa nahiz erdarazkoa irakurtzen duela dio. Hizkuntzarekiko jarrera neurtzen duen bertze arlo bat, telefono solasaldiak nola hasten diren aztertzerakoan azaltzen da. Lehen kontaktua gazteleraz egiten duela onartzen du heren batek.

Euskaldunen %4a alfabetatzen ari omen zen inkesta erantzun zuten momentuan eta lautik batek alfabetatzeko interesa azaldu zuen. Ez alfabetatzeko gehien erabiltzen den arrazoia, berriz, adina da (%58).

Baztandarren erdiak baino gehiagok euskara erabiltzen omen du mugaz bertzaldera gaten denean.

**Bortz erdaldunetik lau euskara ikasteko prest azaldu dira**

Euskara ezagutzen ez duten %13 horri dagokio lanaren zati hau, interesgarria baita komunitatean nagusi den hizkuntzarekiko beraien jarrera ezagutzea. Hasiara batean, %78a euskara ikasteko prest azaltzen da, teoriar behinpein, eta hirutik bat inoiz ikasten hasi omen da, gainera.

Ikasten hasteko arrazoi nagusiak euskal identitatearekin lotutakoak dira eta ikas-teari uzteko berriz, denbora falta aipatzen da. Jende honen

erdiak arazoak nabari ditu euskara ez jakiteagatik.

**Balleko Etxeak bitarteko gehiago zuzendu behar ditu euskararen normalizaziorako**

Baztandarren gehiengo ballea zonalde euskalduneari izatearen alde ageri dira (%60) eta lautik bat Nafarroa hizkuntz eremuetan zatitzearen kontra dago. Hamar pertsonetatik zortzik Baztanen euskara bultzatu behar dela uste du, eta lehentasuna 2. grafikoan ageri diren arloak izanen lukete.


Euskara bultzatzeko irakaskuntza lerroak maila guztietan indartzea eta euskarazko komunikabideei laguntza ematea proposatzen da. %54ak euskararen aldeko ekitaldietan parte hartu duela erraten du.

Inkestatuen %17ak bertzerik ez du ezagutzen Udal Euskara Zerbitzua. Elkarrizketatuen %57aren ustez berriz, Balleko Etxeak bitarteko eta baliabide gehiago zuzendu behar ditu euskararen normalizazio eta garapenerako. Balleko Etxean lan egiteko kontratu berriak egiterakoan, hiru lagunetik bik euskarari lehentasuna eman behar zaiola uste du eta erdiak nahitaezko baldintza bezala exijitu behar dela adierazten du.


**Euskarak hobera egin du azken bortz urtetan lau lagunetik hirurentzat**

Herriko Etxeak bere barne eta kanporako idatzietan erabili beharko lukeen hizkuntzari dagokionez, %57a euskara eta gaztelera berdintasunean erabiltzearen alde ageri da eta %35ak euskarari lehentasuna ematearen alde apostua egiten du. Azkenik, populazioaren hiru laurdenari etorkizunean Baztanaldean euskararen presentzia nagusitzea gustatuko litzaioke eta azken bortz urtetan euskararen egoera nabarmenki hobetu dela uste du.


**EUSKARA NON ERABILTZEN DA**



**EUSKARA NON BULTZATU BEHAR DA**



**BALLEKO ETXEAN LAN EGITEKO EUSKARA...**





# «Denda eta ostatuetan Euskaraz, doike!»



**Baztan, Urdazubi  
eta  
Zugarramurdiko  
denda eta  
ostatuetan  
euskararen  
erabilera  
handitzeko  
kanpaina bat  
hasiko du DOIKE  
Euskara Taldeak.  
Asmo honen  
harat-hunatak  
Doikekidea den  
Juana Mari  
Barberenak,  
Erratzuarra eta  
Baztan Balleko  
Kultura  
zinegotziak,  
emanen dizkigu.**



Juana M<sup>o</sup> Barberena, Kultura zinegotzia

*Hasmenta ona eman diozue taldeari...*

Bai, Apirilaren 20an egin genuen jendeaurreko agerpenean jende aunitz bildu zen DOIKE Euskara taldeari ongietorria emateko. Probestu nahi dut egun horretan lagun izan genituen guziei eskerrak emateko, bai eta Doikeko bazkide egin direnei ere.

*Non hasiko da DOIKE lanean?*

Taldeko kideen artean so-

lastu izan gara eskuarak Baztanen dituen hutsen gainean: Aunitzek badakite baina guttitan erabiltzen dute. Erabilera eskax-eskaxa den alor horietako batean hasiko gara lanean: BOTIKA edo DENDA eta OSTATU edo TABERNETAN, merkatari-tza establezimenduak oro-

korki. Hauetan aunitz aldiz dendaria edo ostalaria euskalduna eta bezeroa edo eroslea ere euskalduna izaki, erdaraz egiteko ohiturari segitzen diote eta erdaraz aritzen dira gelditu gabe.

*Zer eginen duzue DOIKE-kideok denda eta ostatuetan?*

**«Aunitz aldiz ohiturari segitzen diotelakoz aritzen dira erdaraz, eta denda eta ostatuak dira euskaldunok eskuaraz aritzeko toki aproposak»**

Dendaz denda eta ostatuz ostatu ibili Baztanen, Zugarramurdin eta Urdazubin eta gure materiala eman: «Eskuaraz, doike!» paratua duten karteltxoak, eta hitz edo ele erabilgarrienak biltzen dituen hiztegi ttipiak. Hon dar honetan hemengo mintzaira zaindu dugu bereziki. *Zer lortu nahi duzue honen bidez?*

Euskararen erabilera handitu. Baztan aldeko euskaldunek ikus dezatela aunitz aldiz ohiturari segitzen diotelakoz bakarrik aritzen direla erdaraz, eta denda eta ostatuak direla euskaldunok gure artean eskuaraz aritzeko toki aproposak, toki hauekin solasteko eta harremenetarako inportanteak baitira.

*Noiz hasi eta akituko duzue saio hau?*

Hasi maiatzaren hondarrean, gure ustez lan luzea behar du izan denda eta ostatuetan eginen dugunak, urteetako ohiturak aldatu nahi baititugu. Sarri gainera, uda dugu eta euskaldunok argi izan behar dugu kanpoko jendea badator ere, gure artean eskuaraz solasteari segitu beharko diogula.

*Eta geroko zer asmo duzue?*

Uda udan, haur eta gazteendako aktibitateak: Ipuin kontaketak, Baztango lau kuarteletan eta Urdazubi eta Zugarramurdin arituko gara ipuinak kontu-kontari, eta gaztetxoendako kirol jarduerak eskainiko dizkiegu: orientazioa, eskalada, rafting... ♦



**Zuk ere eman dezakezu zure herriko berri TTAPI-TTAPAREN bitartez**

Oitz, Donamaria, Urrotz, Eratsun, Saldias, Legasa, Narbarte edo Malerreka edo Bertizaranako edozein herrietan bizi bazara, zuk ere baduzu TTAPI-

TTAPAN zure herriko berri emateko aukera.

Ez da beharrezkoa, noski, hamabortzean behin zerbait idaztea... zerbait suertatzen denean edo eki-

taldiren bat anuntziatu nahi baduzu deitu 631188 telefonora eta guri kontatu edo zerenek idatzi eta karta igorri (TTAPI-TTAPA, Herriko Etxeko Plaza,

31780 BERA).

Auniztan herri guztietako berrietara ezin ailegatuz ibiltzen gara, baina norbait laguntzeko prest izanez gero aunitzez errexa-

goa izanen da eta al-dizkaria osatuagoa izateaz gain, norberaren herriko berriak irakurri ahal izanen ditugu.

Beraz, animo eta deitu lasai!

**Etxeak egoera onean mantentzeko dirulaguntzak banatu ditu Nafarroako Gobernuak**

**TTAPI-TTAPA**


Nafarroako Gobernuko Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteri saileko kontseilariak zenbait dirulaguntza banatu ditu interes historikoa eta artistikoa duten etxeak egoera onean mantentzeko eta, beharrezkoa bada, moldaketak egiteko.

Dirulaguntza jasoko dutenen artean daude Donamariako M<sup>a</sup> Eugenia Migeltorena (617.314 pezeta), Iturango Jose M<sup>a</sup> Iparra-girre (309.000 pezeta), Oierregiko Jose Mazi-zior (62.000 pezeta) eta Sunbillako Victoriana Graziarena (891.000 pezeta).

**Gerra Zibilaren garaiko obusa agertu da Legasan**

Botila baten tamaina zuen obusa agertu zen maiatzaren 10ean Legasako Lantzubi inguruan, Donamariako muga ondoan. Badirudi lehergailua zaharra dela, Guda Zibilaren garaikoa edo. Doneztebeko guardia zibilei deitu ondotik hauek Iruñeko lehergailu desaktibatzaileen laguntza eskatu zuten.

**ERRENTA AITORPENA 1995**



**AHOLKULARITZA PERTSONALA BEHAR BADUZU ZATOZ CAJA RURAL-ERA**

Aitorpena egiterakoan zerbitzu eroso, bizkor eta eraginkorra aukera ezazu. Eraberean, zure Aitorpenean pertsonalki aholkatuko dizun zerbitzua aukeratu. Caja Ruralen zuri laguntzeko prest dagoen aditu taldea zain daukazu. Ez zalantza gehiagorik izan. Aurten zure Aitorpena Caja Rural de Navarran tramita ezazu.

**AITORPENA ERRAZTEKO 100 BULEGO BAINO GEHIAGO DITUGU NAFARROA OSOAN ZE HAR**



**CAJA RURAL DE NAVARRA**



Goizueta

## Umore Ona areto-futbol taldeak denboraldiaren balantzea egin du

Datorren urtean gehienek segituko badute ere, dei berezia egin diete herriko futbolzale guzietan parte hartzeko

ESTEBAN AROZENA

8 taldeko liga erregularrean seigarren postuan gelditu arren bukatu berria den denboraldiarekin pozik daude Umore Ona areto-futbol taldekoak, Patxi Bakero jokalaria esan digunez.

Gipuzkoako bigarren mailatik hirugarrenera jeitsi zirenean iaz, berrikuntza handia eman zen ekipoan kide gazteak sartuz. Hauek haize freskoa ekarri omen dute taldera eta horren ondorioz talde lana eta entrenamenduen disziplina asko hobetu omen da. Horrela, gero eta emaitza hobeak eskuratu dituzte eta liga bukatuta jokatu den



Umore Ona elkarteak urtero antolatzen duen mendi bizikleta ibilaldia hurrengo igandean korrituko da. Zirkuitoa ohikoa; hau da, herriko plazatik atera eta Kuxiñeneko bordan barrena Enekoelorrrietara igo (690 m) eta hortik dena gainbeheran berriz herriratu arte. Irteera goizeko 10etan emango da eta bukatutakoan hamaiketako izango da

Udaberriko kopan finalerdietaraino ailegatu dira.

Fitxak eta arbitroen

soldatai aurre egiteko behar dituzten 150.000 pezetak udala eta Umore Ona elkarteak

ordaintzen dizkie. Bidaien gastua berriz, jokalarien poltsikoetatik ateratzen da. Halere,

Patxi Bakero esandakoaren arabera, ia guztiak jarraituko dute hurrengo urtean, adinaren eraginez berak erretiratzeko erabakia hartua duen arren. Dena den, ekipoari zabaltea gomeni zaioenez, herriko futbolzale gazteei deialdia luzatzen diete hurrengo denboraldirako taldean sartu daitezela.

Hauek izan dira Umore Onako jokalaria: Porteroak, Aitor Mendizabal eta Iñigo Elizegi; Defentsak, Unai Miranda, Antxon Rodriguez, Jose Moreno eta Juan Apeztexea; Aurrelariak, Mikel Elizegi, Patxi Iribarren, Iñaki Rodriguez, Dani Narbarte eta Patxi Bakero.

Areso

## San Fermin ikastolako abesbatza kantari izan genuen

Fermin Iriarte zugarramurdiarraren zuzendaritzapean

JUANA M<sup>o</sup> SAIZAR

Maiatzaren 5ean San Fermin ikastolako abesbatza bisitari izan genuen. Fermin Iriarte zugarramurdiarra izan zuten zuzendari. Kontzertuak bi zati izan zituen, mezakotan, hiru kantu polifoniko eta meza ondoren, elizan bertan, bi kantu txirularen laguntzarekin. Abesbatzaren kalitatea gehiagorik nabarmentzen zen



elizaren akustika egokiarekin. Gero, elizartarian, musika sakra-

tuaren ondotik folklorari ekin zioten euskal kantu batzuk kan-

tatuz. Hogeitabi neska aritu ziren kantari eta jendea gustora egin

Ekainaren 2an ospatuko da aurtengo Kultur Eguna. Joan den urteko argazkian ageri den bezalako parte hartzea espero da.

Argazkia: Juana Mari

zen eta bukaeran gazta eta ardoa banatu ziren han bildu ziren guztiendako.

### Gaztetxoan afaria

Sokatiran aritzen diren gaztetxoak bere emaitzak ospatzeko afaria egin zuten maiatzaren 4an herriko karrapean. Ondoren musika beraiek jarri zuten, akordeolariak eta panderojoleak beraien adinakoak baitziren.





# Aste ondar honetan bukatuko da aurtengo Kultur Astea

Ostegunean eskualdeko euskarari buruzko ikerketa aurkeztuko da eta igandean eskulan erakusketa izanen da

**JOSEBA AZPIROZ**

Kultur Asteak aste honetan zehar izanen du segida, egitarau zabal batekin.

Ostegunean Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko euskerari buruzko ikerketaren aurkezpena egingen dute Patziku Perurena, Mikel Olano, Tomax Azpiroz eta Juan Jose Zubirik, arratsaldeko 8etan, Liburutegian.

Ostiralean, arratsaldeko 3etan bideo emanaldia ume txikientzat zinean, arratsaldez Katakarak zirkoa (malabaristak) umeentzat plazan eta ondoren txokolatada. Gaueko 10etan zinean Jazz talde baten emanaldia.

**ESKULAN ERAKUSKETA IGANDEAN**

Larunbatean 8,30etan elizan Asketa abesbatzaren kontzertua; gaueko 11 etatik aurrera Jarauta 69 txaranga ibiliko da.

Igandean 11 etan eskulangintza erakuske-



Raul Heras, 19 urteko arrantzale gazteak sei urte daramazki erreka bere kainabera hartuta. Halere, ez zuen inoiz maiatzaren 2an, Leitzaan errekaiko Beko-Errota inguruan ateratako amuarrain hori bezalakorik arrantzatu. 3,800 kiloko pisua eman zuen.

ta zabalduko da. 2,30etan herri bazkaria izanen da eskolako jantokian. Ordu batean eta bazkal ondoren bertsoarien saioa izanenda: Sebastian Liza-so eta Xabier Zeberio. Eguerdian eta arratsaldean Tolosako musika eskolako banda arituko da.

**Ur-hartzeak udal baimena behar du**

Orain arte bajera edota lokal askotan ur-hartzeak baimenik gabe egin direla eta, Udalak jakinarazi du alta ematen ez dutenei Udal ordenantza aplikatuko dietela, hau da, ura moztuko dietela.

**Notarioaren ordutegia**

Lekunberriko Notarioa hileroko lehendabiziko ostiralean etorriko da Leitza Udaletxera, herritarren harrerarako. Goizeko 10etatik 12ak arte egonen da.

*ttipi-flash*

- ❖ **902.000 pezetako** dirulaguntza jasoko du Concepcion Zabaleak Nafarroako Gobernutik interes historiko eta artistikoa duen Astaritzagaetxea egoera onean mantentzeko eta beharrezkoak baditu, moldaketak egingeko.
- ❖ **1.652 ibilgailu** Trafikoko datuen arabera, 1.652 ibilgailu daude herrian. Horietatik 66 motoak dira, 1.300 automobilak eta gainerakoak kamioi edota furgonetak.
- ❖ **Udal errolda** Dakizuen bezala Udal Errolda (padroia) berritzen ari dira. Oraindik ez baduzu zure orria bete, Udaletxetik pasa beharko duzu ekainaren 7a baino lehen.

© 948-451771

**• Istripu Aseguruak**  
Gaixotasun edo istripuetan kobratu ahal izateko

Huarte Gotzai 8, beheak • 31880 LEITZA  
Tel. (948) 61 09 19  
**M<sup>a</sup> Jesus BARAIBAR**

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu  
Eta ezkontzea pentsatu baduzu, harrituko zaitugu!

**Basa Kabi**  
Tel. 51 01 25 . Faxa: 61 09 65  
LEITZAKo Gaina

**muñeca de Trapo**

**IRUN**

Luis Mariano, 35  
Tel.: (943) 62 52 55



**Baztan**

## San Isidro egunean ere, laborariak lanean aritu ziren

Nekazarien Egunerako aurrikusia zegoen EHNE sindikatuaren Elizondoko egoitzaren inaugurazioa gibeleratu egin dute

JOSEBA IGARABIDE

Egunotako eguraldi ederra probetxatuz lanari gogor lotu dira laborariak, kanpo lan aunitz baitago egiteko. Halere, San Isidro egunean Azpilkueta, Amaiur eta Lekarozen astia hartu zuten bazkari bat egiteko.

Nekazarien Egunerako aurrikusia zegoen ere, EHNE sindikatuak Elizondoko duen egoitza berriaren inaugurazio ofiziala, baina eguraldia onegia zenez, bertze aldi baterako gibeleratzea erabaki dute.

### Landa-etxeak

Maiatzaren 16an, Oronozko San Martin eskolan landa-etxeen kalitateari buruzko ihardunaldiak burutu ziren, Landa-etxeen Federazioaren eskutik.

### Tortura salaketak artxibatutak

Xotero Etxandiri egindako tortura salaketa behin behingoz artxibatzea erabakia hartu du kasua darman epaileak.

### Erratzuko...

jostungintza eta eskulan ikastaroan aritu diren emakumeek afaria izan zuten maiatzaren 10ean.



Arraiozko hamalau emakumek apirilaren 26an Narbarteko El Rio jatetxean egindako aitari eder batekin akitu zuten aurtengo gimnasia ikastaroa. Joan den urteko urrian hasi eta apirila bitarte iraun duen ikastaroaren monitorea Esteban Leiza izan da.

### San Migelen...

irudia Baztanen barna pasatu zen joan den astean.

### Irurritako...

antzerki taldearen 'La casa de Quirós' antzeslana eskeini zuten maiatzaren 11n Elizondoko Kasinoan.

### Xorroxin kontzertuak

Ekainaren 1ean kontzertua izanen da Erratzuko frontoian gaueko 9etatik aitzinera, Rigor Mortis, Lau Behi, Supermirafioris, Kargol's eta Koma taldeekin. 500 pezeta gostako den sarrearekin batera CD bat banatuko da.



Boiloneneko Juan Manuel eta Etxebertzeko Juan Miguel izan dira aurtengo Amaiurko mus txapelketako irabazleak. Txapelketa bi hilabetez jokatu da Amaiurko Gaztelu elkartean, ortzilerie atsetan eta igande eguerditan. 18 bikotek parte hartu dute.

Argazkia: Mirentxu GOIENETXE

*ttipi-flash*

### Arizkungo

Norberto Iribarrenek 333.508 pezetako dirulaguntza hartuko ditu Nafarroako Gobernutik interes artistikoa eta historikoa duen bere jabetzako etxea egoera onean mantentzeko.

### UEUra joateko laguntzak

Udako Euskal Unibertsitatera joan nahi duen edozein ikasle edo langabetuk aukera du Baztango Udalak horretarako jarriak duen dirulaguntza eskatzeko. Informazioa Euskara Zerbitzuan 580006.

### Mendi Ibilaldia

Baztan Balleko III. Mendi Ibilaldia burutuko da ekainaren 9an. Izena 581279 (Elizabet) eta 453060 (Ixabel) telefonotan eman daiteke.

### Internet

sareari lotua dago, ekainaren 8az geroztik Lekarozko Institutua. Pausu hau eman duen Nafarroako lehen institutua da.

**DANBORIENA**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

© 453403 - ARIZKUN

ARROPA DENDA



**CERVANTES**  
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia

M<sup>re</sup> Dolores Miriana  
TOPOGRAFA

NEURKETA • PLANOAK



Lur neurketak, Luberriak  
Plantazioak, etab...

☎ 580143 - 989.445986  
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO



# Berroetako bestak aste ondar honetan ospatuko dira

**Maiatzak 24, ortzilerie:** 8,30etan, Altxaferoak botako dira eta hauekin batera Doneztebeko txistulariak. **9etan** herri afaria eta dantzaldia Joxe Angelekin. **Maiatzak 25, larunbata:** 12etan haurren jokoak. 7,30etan akordeolariak. 12,30etatik 4,30etara Equus taldea.

**Maiatzak 26, igandea:** 12etan meza nagusia. Ondoren hameketakoa eta txistulariak. **1etan** pilota partiduak. **6,30etan** herri kirolak. **8etatik 10,30etara** eta **12etatik 2,30etara** dantzaldia Equus taldearekin. **Maiatzak 27, astelehena:** 12,30etan mus txapelketa. **2,30etan** zikiro-jatea bertsolariekin eta musika Joxe Angelekin.

Berroetako plazan mutildantzak dantzatzen ari dira duela 75 urteko argazkian. Behituan, bestetan urte aunitzez egiten zen asto karrera. Jendea eta astoa mozorratu egiten zen eta argazkia orain 10 urtekoa da. Eskuinaldean herri kirolak, Basaburuako taldearekin.

Argazkiak: Nekane MIGELTORENAK utziak



Argazkia: Goizalde URDANPILLETAK utzia



**Bierresenea**

**OSTATU - JATETXEA**

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

**ttipi-ttapa**

**Gida Komertziala 96**

Ez galdu sekulan begi bistatik.  
Den-dena eskeintzen dizu!



**ERTZILLA**

**ALBAITARITZA**

**KONTSULTA**

Txakur eta katuendako

**ORDUTEGIA**

10etatik 1etara eta 4etatik 8etara

Larunbatetan 10etatik 1etara

Santiago 30, © 580627

Larrialdiak: © 580762

**ELIZONDO**

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939

ELIZONDO

➤ **ARROPETAN:** Trajeak, konjuntxoak, blusak, galtzak, kamisetak, jertseak, soinak...

➤ **Bainu Jantziak, Barneko Arropak, Pijamak...**

➤ **Bitxiak eta konplementoak**



UDA HONETAKO EZKONTZETAKO

KANPAINA BERRIA HASIA DAGO

JAUNARTZE EGUNEKO ARGAZKI

ETA OPARI HOBERENAK

KALE NAGUSIA 4 - TEL ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE  
SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO



Zugarramurdi

## Akelarre elkarteak antolatutako pilota txapelketa laister hasiko da

Helduak paleta goma eta larruzkoan jokatuko dute eta ttikienek esku pilotan

MARGARI ETA KORO

Akelarre elkarteak antolatutako pilota txapelketa bateri laister hasiera emanen zaio. Izen ematea frontoiko ostatuan egin behar da maiatzaren 26a baino lehen. Hiru modalidade izanen dira: paleta goma eta larruzkoa (helduentzat) eta eskuz (alebin, gaztetxoak eta haurrak). Txapelketaren hasiera ekainaren 2an izanen da. Esku pilota txapelketaren finalak abuztuaren 15ean jokatuko da eta pala txapelketenak irailean.



Urtero bezala Urdazubi eta Zugarramurdiko nekazariek San Isidro eguna ospatu zuten. Alkerdiko kaperan meza entzun ondotik Armuan bazkaldu zuten, bi herrietako nekazarien erlazioak sendotu nahian

### Gaupasan lan egiteko ehun lagunetik goiti elkartu dira

Antolatzaileak etxe ibili ondoren eta jendeak borondate ona agertuz, ehun bat lagun elkartu dira gaupasan lan egiteko. Palazioko ostatuan jarririko da txanden zerrenda eta zerbait aldatu nahi izanez gero, Margari edo Inakiri lehenbaitlehen erran beharko zaio. Norbait usategabeen zerrendatik kanpo gelditu bada ere, bietako bateri erran diezaioke.

Urdazubi

## Salbatoreak eta San Isidro eguna ospatu berriak ditugu

Bertzalde, Nafarroako Gobernuari hainbat lan eskari egin zaizkio Hirurteko Plangintzaren barrenean

ALIZIA OLAIZOLA

Salbatore bestak pasatu berriak ditugu maiatzaren 15etik 19ra. Zerbait aipatzekotan jendea joan den urtean bezalatsu ibili da, asteburuan gehiago izanez. Larunbateko zikiro jatean giro ederra izan zen. Maiatzaren 15ean, San Isidro eguna zela eta laborarien eguna izanez, urtero bezala, goizean meza Alkerdiko San Esteban kaperan ospatu zen eta ondotik Armua jatetxean bazkaria egin zuten Zugarramurdi eta Ur-



Aurtengo kinto besten ospakizunak finituxeak

dazubiko laborari andana bat elkartuz eguna ospatzeko.

### Hirurteko Plangintzarako lanak

Nafarroako Gobernuaren Azpiegituren Hirurteko Planerako Herriko Etxearen lan eskariak honako hauek izanen dira: Bideak, plazako iturria, plazako komunak, kanposainduaren konponketa, San Esteban ermitako plazaren konponketa, Santiago Villarensen paretaren konponketa eta Etxeberriako zubiaren konponketa.



Sara

# Gaita Eguna iragan zen elizan apirilaren 2an

Beñat Elizalde Iratzekoak medaila ukan du

MIXEL ETA JACQUELINE

Gaita Eguna, apirilaren 2an iragan zen Sarako elizan. Uztaritze, Donibane Lohitzune eta Baigorriren ondotik aurten Sararen aldia zen. Nahiz ez den urte guziz gaita hola ohoratzen, ospakizun hau ohidura bat bihurtzen ari da guziz gaitero eta gaitazaleen artean. Hegoaldetik eta Iparraldetik jin 50 bat musikari elkartu ziren beraz, eta horien artean Xabier Lakuntza, J. Fraile, Betti Bidart, bai eta bertze ezagun eta ezezagun ainitz. Erran behar da gure herrian azken berrogoita hamar urte hauetan gaitaren soinua beti entzuten dela besten kariatat eta ondorioz herriko gazte batzuk



Sarako eta Senpereko gaiteroak

Argazkia: J.P. Lemoine

gaitaren erabiltzen hasiak ditugu eta batzuek xarmanki darabilte. Geroak erranen gaitero famatuak bihurtuko diren ala ez bainan guk ez diegu bertzerik desiratuko. Ale hunen bitartez musikari guziak eskertu behar ditugu

eskaini daukuten arratsarentzat baita antolatzaileak ere, Herri Soinulariak, Zazpiak Bat elkarte, Sarako Besta komitea, Ekimen zerbitzua, herria, D.R.A.C. batasuna eta Orogen laguntzarekin

iraunen dute ohidurek eta ohiko soinuek.

## Maiatzaren 8ko ospakizunak

Maiatzaren 8an Beñat Elizalde Iratzekoak medaila bat ukan du gudari ohien ministroz frantses banderari zintzoa izaitea-

gaitik. Sari hau Herriko Etxean emana izan zaio auzapezaren eskutik, bere jendaki eta gudari ohien aurrean. Beñat 1939an altxatua izan zen bertze ainitz bezala, guduan parte hartzeko alemanen aurka eta bortz urte igaroz zintzen preso. Goresmenak Beñati denon partez.

## Gau pasak

Aurtengo bi gau pasak iragan dira modu hoberenean. Nahiz lehen gau pasak errekin gaitero ukan arras ongi pasatu da eta Herri Urrats gaua ere. Hontan lau milako bat lagun bildu da itxura guzian arabera eta giro gaitza sortu da. Langile eta laguntzaile guziak eskertu nahi ditugu lehen hauen bitartez.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

# ANZABAL

AGENTZIA

### Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

### Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

### Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

### Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

### Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

## HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin  
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19  
64130 SARA



LARRALDEA

SAGARDOEGIA

Asteartetik ortzirala betatik aitzinerat  
Larunbata eta besta egunetan zabalik.

© 45 21 21 • LEKAROZ



ARMUA  
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

ttipi-ttapa  
Gida 96

Ez galdu sekulan begi bistatik.  
Den-dena eskeintzen dizu!



## EZKONTZAK

**Jose Sagasetta Irigoien** eta **M<sup>a</sup> Pilar Urrutia Dorregarai**, NARBARTE eta Iruritakoa, maiatzaren 4ean.

**Guillermo Otxoa Susperregi** eta **Ana Leticia Rotaetxe Gallano**, ORERETA eta Donostiakoa, maiatzaren 4ean.

**Joaquin Etxart Maia** eta **Blanca Verdú Irigoien**, Urdazubikoak, apirilaren 20an.

**Jean Michel Teillerie Salaburu** eta **Sole Ariztia Mendiburu**, Itxasu eta Azpilkuetakoa, maiatzaren 11n.

**M<sup>a</sup> Jesus Etxeberria** eta **Jose Antonio Bereau**, Sunbilla eta Arantzakoa, maiatzaren 4an.

## JAIOTZAK

**Nagore Fernandez Ruiz**, Lesakakoa, apirilaren 23an.

**Saioa Elizegi Saharrea**, Gartzaingoa, apirilaren 27an.

**Olaia Iturbide Barandian**, Elizondokoa, apirilaren 27an.

**Maria Urrutia Karrikaburu**, Elizondokoa, apirilaren 28an.

**Laura Ramos Iraola**, Berroetakoa, maiatzaren 3an.

**Jaione Ariztegi Agerrebere**, Urrotzkoa, apirilaren 25ean.

**Beñat Iparragirre Olasagasti**, Etxalarkoa, apirilaren 5ean.

**Joan Agesta**, Sarakoa, apirilaren 29an.

**Fernando Inda Lizasoain**, Donamariakoa, martxoaren 27an.

**Jon Telletxea Goñi**, Donamariakoa, martxoaren 23an.

## HERIOTZAK

**Jorge Etxeberria Saldias**, Elgorriagakoa, apirilaren 26an, 84 urte.

**Martin Oskariz Azkona**, Elizondokoa, maiatzaren 2an, 72 urte.

**Miguel Ripalda Seminario**, Elizondon, maiatzaren 4ean, 89 urte.

**Etienne Berecochea**, Sarakoa, maiatzaren 5ean, 49 urte.

**Jose Maria Agirre Zugarramurdi**, Berakoa, maiatzaren 4ean, 90 urte.

**Isabel Juan Iturria**, Legasakoa, maiatzaren 7an, 85 urte.

**Pablo Leza Etxeberria**, Etxalarkoa, maiatzaren 15ean, 73 urte.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA**  
3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO**  
polit bat oparitzen diegu. Amendako  
"Está creciendo" liburua daukagu.

**IRUÑEKO KUTXA**  
Fundazioa Lida - Alameda Kutxa

## LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak



Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305

## Elizatzte

**ERLOJUTEGI  
BITXITEGIA**

*Nafarrentzat  
prezio bereziak*

Landetxe Enparantza ☎ 943.492698 **OIARTZUN**

# RIGOR MORTIS

# LAU BEHI

# SUPERMIRAFIORIS

# KARGOL'S

# KOMA

# ERRATZU

# EKAINAK 1

ARRATSALDEKO 9 ETAN

SARRERAK OHIZKO TEKUFAN SAIGAL

LEHENDABZIKO 500

SARREREKIN K.D. DOHIANIK

XORROXIN KONTZERTUAK



## BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta

Urgentziak .....112/088

Osasun Zentruak

Elizondo..... 452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka ..... 637428 / 637336

Leitza ..... 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako Ospitalea .... 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino

Erresidentzia ..... 109400

Gurutze Gorria ..... 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea ..... 614600

Gipuzkoako ospitalea .... 460299

Erresidentzia ..... 453800

Anbulatorioak

Irun ..... 630264 / 621106

Anbulantziak

Oitz ..... 450242 / 450805

DYA

Lesaka

(Larrialdiak) ..... (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) ..... 171717

FUNERARIA

Doneztebe ..... 450475

Elizondo ..... 580924

Lesaka ..... 637404

Suhiltzaileak

Ornoz-Mugairi ..... 592255

Garraioak

Bidasotarra ..... 631150

Baztanesa ..... 580129

Leitzarari ..... 515018

Aberiak:

Iberdrola ..... 450335 / 450336

## Hamar zenbaki izanen dituzte estatu frantseseko telefonoak

Urriaren 18tik aitzinera Iparraldeko telefonoak hamar zenbaki izanen dituzte, gaur egungo zenbakieiei aitzinetik 05 paratu beharko baitaie. Iparraldetik bertatik deitzeko. Hegoaldetik deitzeko ere zenbaki bat gehitu beharko zaio: 07-33 markatu ondotik 5 zenbakiari eman beharko zaio, gero zortzi xifra-ko zenbakia markatuz. Iparraldetik Hegoaldera deitzeko ere aldaketak izanen dira. Orain arte, estatu arteko zenbakia 19 zen bitartean, aldaketan ondotik 00 markatu beharko da, seinalea hartzeko.

### MUNDU MAILAKO ARAUEI EGOKITU

Aldaketa hau Europa eta munduko arauetara egokitzeko egin da, laister nazioarteko prefijoak 00 izanen baita. Eraberean, telefono sarearen ez da Frantziako estatuko monopolioa izanen 1998ko urte hasieratik aitzinera eta sektore pribatuak merkatu zabalagoa izanen du hamar zenbakiko tele-



Sarako Herriko Etxearen gaur egungo telefono zenbakia 59542028 da. Saratik bertatik deitzeko 05 zenbakiak jarri beharko zaizkio aitzinetik. Hegoaldetik deitzeko, 07-33 prefijoaren ondotik 5 zenbakiari eman beharko zaio. Iparraldetik Hegoaldera deitzeko berriz, 19 nazioarteko zenbakiari eman beharrean 00 zenbakiari eman behar zaio.

fonoari esker. Daniel Delestre, France Télécom enpresako ordezkariaren erranetan, "merkatuaren haunditze bati aurre egin behar diogu: Atlantiar Pirinioen eskualdean 54.000 telefono zeuden 1965ean, 224.000 1985ean eta

joan den urtean 313.000tik goiti gertu". Momentuz, Iparraldeko enpresen %3ak bertze-rik ez ditu beharrezkoak diren moldaketak egin eta "urriaren 19ko goizean enpresa aunitz telefonorik gabe egoten ahal dira".

## Merkatal gestioari buruzko ikastaroa

Ekainaren 3tik 14a arte hogeitau orduko iraupena izanen duen 'Merkatal gestioari buruzko ikastaroa' antolatu du Bertizko Partzuergoko Merkatal Elkarteak.

Ikastaroa Doneztebe-ko Juansenean burutuko da eta ordutegia, astelehenean ortzira-lerara, arratsaldeko 3etatik 5etara izanen da. Matrikularen prezioa 5.800 pezetakoa izanen da Partzuergoko bazkideentzat eta 17.400 pezetakoa bazkide ez direnentzat. Interesatuak 592323 telefonora deitu behar dute, maiatzaren 30a baino lehen.

## Lurra aldizkaria

Ale honekin batera **Lurra** aldizkariaren 6. zenbakia duzue eskuartean. Gazteen denbora libre, Emakumea eta lan mundua, nekazaritza-abelzaintza, oihangintza, dirulaguntzak, elkarrizketa eta intereseko bertze gaiak azaltzen dira.

## FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritarra trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE



Asteburuetan kontziertoak

Bokadilloak eta pintxoak

San Migel auzoa (Osasun Zentroaren ondoan) • © 450991 • DONEZTEBE



DATUAK.....

1 Nerea Iriarte Judoka lesakarrak 17 urte bete zituen urtarrilaren 17an.

2 BUPeko hirugarren maila ikasten ari da Irungo Institutuan.

3 Gipuzkoako txapelduna suertatu da aurten senior mailan eta 19 urtez behitiko kategorian sektoreko -Euskadi, Nafarroa, Aragoi eta Errioxa- txapeldun izan da.

4 Eskubaloian eta futbitoan ere aritu izan da.

5 Urte pare bat darama goi mailan konpetitzen baina aurten arte ez omen zion inork kasu haundirik egin.

TESTUA:  
AITOR AROZENA  
ARGAZKIA:  
KARMELE TOLOSA


# Nerea IRIARTE: «Nerbioen presiorik gabe hobekiago aritzen naiz judoan»

Sei urte zituela hasi zen Nerea Iriarte judoan eta hamar urte beranduago, joan den urteko azaroan, gerriko beltza jantzi zuen. "Ez da batera errega izan. Bi modu daude gerriko beltza lortzeko: nik egin dudana bezala, txapelketen bidez edo txapelketik jokatu gabe, ariketa guztiak eginez. Karatean, adibidez, bi urtez eskuratu dezakezu zinturoi beltza, baina judoan urteak eman behar dituzu".

## GIPUZKOAKO TXAPELDUN MAILA NAGUSIAN

Konpetitzerakoan ere gogor ibili da Nerea eta aurten txapel garrantzitsuak eskuratu ditu, modu berezian gainera. 19 urtez behitiko kategorian Euskadiko bigarrena izan ondok, sektoreko -Euskadi, Nafarroa, Aragoi eta Errioxa- txapela irabazi zuen. Gipuzkoako txapelketan berriz, 19 urte arteko kategorian zilarrezko domina eskuratu bazuen ere, maila nagusian urrezkoa lortu zuen. "Urduritasun kontua da hori, -dio lesakarrak- goizean nere kategorian jokatu eta arratsaldean, senior

► "Judoan aritzeko indarra behar da, noski, baina teknikak zerikusi haundia du, indar hori erabiltzen jakin behar duzu, eta, azkenik, mugimenduetan azkarra izan behar duzu"



Nerea Iriarte gerriko beltza Gipuzkoako judo txapelduna izan da aurten

mailako txapelketara gutti gora behera denbora pasatzera joan nintzen eta begira". Espainiako txapelketan ere parte hartu du Madrilen baina ez du emaitza onik lortu. "Hor hagitz gaizki, txapelketa guztiko lehengoa deitu zidaten,

ez nuen nere kimonoarekin parte hartzerik izan...".

Hondarribiako Judo Clubeko partaidea da eta normalean bi egunez Lesakan entrenatzen du eta gainerako egunetan, "normalean, astean hiru egunez eta txapelketa garaian, ortzeguna ezik, egun guztietan", Irun eta Hondarribian, Jesus Cayetano hondarbitarrarekin. Urduritasuna kontrolatzea da Nerearen erronka nagusia, "ha-

gitz gaizki ibiltzen naiz", eta ezaugarriak nabarmenena berriz, "eskuin eta ezker alde-tik ongi moldatzen naiz". Judoan aritzeko "indarra behar da, noski, baina teknikak zerikusi haundia du eta mugimenduetan azkarra izan behar duzu".

Etorkizunari begira ez du asmo berezirik Lesakako gazteak. "Kirolean segitzeko afizioa eta asmoa dut, ahalik eta urrutiena ailegatu, bertzerik gabe". ■



# Nafarroako erremonete txapelketaren finala datorren asteburuan jokatu da

Koteto Ezkurra, Patxi Etxeberria eta Iñaki Lizaso doneztebarrak parte hartzen ari dira

Maiatzaren 11n hasiera eman zitzaion Nafarroako erremonete txapelketari. Eskualdeko hiru ordezkari parte hartzen ari dira, hiruak doneztebarrak: Koteto Ezkurra aurrelaria eta Patxi Etxeberria eta Iñaki Lizaso atzelariak, azken honek lehen aldiz parte hartzen duelarik honelako txapelketa batean.

Lau bikote ari dira ekainaren 2an Iruñeko Euskal Jai Berrin burutuko den finalerako txartelaren bila. Ezkurra-Zandio, Elizalde-Lizaso, Martin Lekunberri-Etxeberria eta Lezea-Angel Lekunberri. Beraz, nahitahi ez eskualdeko erremonetelari bat finalerako aukera izanen dugu.

Gainerako partiduguziak Iruñean jokatu

## Gorabeherak udako eskuz banakako pilota txapelketarekin

 Asegarcek uda alderako antolatutako gogoz duen eskuz banakako txapelketaren inguruan gorabehera dexente sortu dira. Retegik, planteamendua gustatzen ez zaiola eta ez jokatzeko intentzioa agertu bazuen ere, enpresak, azkenean txapelketa egiten bada, horretara behartu dezake eratsundarra. Guztira 6 pilotariri deituko die Asegarcek.



Erremontelariak, intendenteak, zuzendariak eta agintariak, Galarretan egin zen aurkezpen ekitaldian

Argazkia: D.Noticias

badira ere, igande honetan Elizondoko frontoian Ezkurra-Zandio eta M. Lekunberri-Etxeberriaren arteko norgehiagoka ikusi ahal izan dute.

### LIZASO ITXAROPENTSU

Iñaki Martinez Lizaso

doneztebarrak orain hiru urte 'erdi debutatu zuen profesional bezala eta pare bat hilabete bertzerik ez darazkizue maiz xamar lehen partidua jokatu. "Ilusio handiz espero dut aukera hau. Pixko bat urduri nago

*baina Elizalde mai-xuarekin jokatzeko la-saituko nau".*

Laxoaren harrobitik ateratako pilotari honen bertuterik nabarmentzena "erasoko jokoa da, hagitz agresiboa naiz kantxa gainean".

## Mendi bizikleta karrera burutuko da Gartzainen ekainaren 2an



Ekainaren 2an Gartzaingo herriko antolatutako mendi bizikleta karrera burutuko da. Ibilbidea Gartzain inguruetatik egingen da eta

20 kilometro izanen ditu. Irteera goizeko 11etan emanen zaio eta izenematea ordu erdi lehenagotik egin ahal izanen da. Proba bukatuta sariak eta hameketakoa banatuko da partehartzaileen artean.

## Baztan-Errekako Laxoa txapelketa azken txanpan sartu da



Maiatzaren 26an eta ekainaren 2an jokatu-ko dira laxoa txapelketako ligaxkako azken partidua. Horren ondoren, ekainaren 9

eta 16an burutuko dira finalerdiak eta final haundia ekainaren 23an izanen da. Orain arte ikusitakoaren arabera, Doneztebeko taldeak txapelari eusteko aukera aunitz ditu.



### 640 kiloko Euskadiko sokatira

irabazi zuen maiatzaren 5ean Beti Gazte taldeak. 680koan berriz, bigarren postua eskuratu zuten. Honenbertez denboraldi bikain bati akabera eman diote lesakarrak, Euskadiko bi txapel eta Nafarroako hiru eskurati baituzte.

### Abel Barriola

pilotari leitzarria Espainiako eskuz banakako txapeldun suertatu da jubencil mailan, Guadalajaran maiatzaren 12an Legorburu arabarraren kontra jokatu-ko finalerako 18-9 irabazi ondok.

### Inaxio Errandonea

Alkaiegako pilotaria laugarrena sailkatu da eskuz banakako pilota txapelketan. Belokiren kontra 22-16 galdu ondok.

## Hamabostaldiko Jokaldiak



### Maika Ariztegi korrikalari iturendarra.

Inguru honetan burutu diren laisterkaldi gehienak irabazteaz gain hirugarren postua eskuratu zuen Iruñeko Maratoi Erdian, berea ez den distantzia batean. Hiru herriko laisterketan ere aisa nagusitu zen.



### Asegarce-Retegik gorabeherak.

Pilota munduan dagoen enpresarik haundienak eta historian izan den pilotari haundienetako batek ezin dute udako eskuz banakako pilota txapelketa dela eta plazartu dituzten hikamikak izan.



## AGENDA EGUNEZ EGUN

### BESTAK

#### BERROETA

► **Maiatzaren 24tik 27ra** Xehetasunak 21. orrialdean.

#### TRINITATE EGUNA

► **Ekainaren 2an** Ohiko erromeria Mendaurko ermitara.

### KONTZERTUAK

#### ERRATZU

► **Ekainaren 1ean** Xorroxinek antolaturik, Rigor Mortis, Lau Behi, Supermiriafioris, Kargol's eta Koma taldeak. Sarrerak salgai ohiko lekuetan.

### ERAKUSKETAK

#### BERA

► **Maiatzaren 24tik 26ra** Kultur Etxean Uxanen egindako eskulanen erakusketa. Ortziralean 5etatik 7,30etara eta larunbat-igandean 11etatik 1etara eta 5etatik 8etara.

### BERTSOAK

#### LEITZA

► **Maiatzaren 26an** eskolako janttokian bertso bazkaria Sebastian Lizaso eta Xabier Zeberio, Kultur Astearen barnean.

### LEHIAKETAK

#### LESAKA

► **Maiatzaren 24an** akabatuko da Sanferminetako azal eta kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea.

### ERREZETA



## Zerri besoa egosia

### Osagaiak 2 laguntzat

• Zerri beso bat, freskua (ukondo alde) • 2 tipul • Aza buru erdi bat • 2 ezenario •

### Prestatzeko modua

Dena egosteko bi ordu inguru behar dira. Lehenik, zerri besoa ur gazian jarriko dugu egosten, eta ura irakiten hasten denean, 5 minutu utziko dugu irakiten. Gero, ur hotza botako dugu el-

tzera haragi guziaz estali arte eta eltzea taparekin estalita dugu, su ezitan utziko dugu. Egostetik bukatzeko ordu erdi inguru falta denean, aza, tipulak eta azenarioak sartuko ditugu. Piper beltza eta oliba olio gailarakada bat ere botako dugu.

Egosita dagoenean, zerrikia eltzetik ateri eta gelditu den salda



Xabier LANDA

Taberna del  
Fotografo  
• IRURITA •

hozten utziko dugu. Gainean gelditu den gantza kenduko dugu eta salda, garbantzo batzuk egosteko altxatzen ahal dugu.

On egin!

### BASERRIA



#### ❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.600 pzta.  
• **Zerri gizona** (95-100): 210pzta./kilo  
• **Zerramak**: 120-125 pzt./kilo bizirik.



#### ❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak**:  
• **Idixkoak**: Pzta./kg. Kanal Extra ..... 550  
1.koa ..... 530  
2.koa ..... 510

• **Urruxak**: Pzta./kg. Kanal Extra ..... 560  
1.koa ..... 530  
2.koa ..... 500  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.  
• **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):  
**Nabarrak**: urruzak 18.000 eta idixkoak 25.000 Pzta.  
**Mestizoak**: urruzak 26.000 eta idixkoak 38.000 Pzta.  
**Behi zaharrak**: Behi nabar gizona: 370 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 410 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...



#### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza  
• **Bertako sagarrondoak** 950.  
• **Udareondoak** 950 pzta.  
• **Gereziondoak** 1.050 pzta.  
• **Aranondoak** 1.050 pzta.  
• **Muxika** 880 pzta.  
• **Urritza** 880 pzta



#### ❖ LANDAREAK ❖

• **Porruak** zientoa 400.  
• **Tipulak** zientoa 800.

ETXANDI  
TXOKO  
erretegia

Bazkari, afari eta  
gosariak

ITUREN  
Tfnoa: 45 04 91

## koxkonta



Sagardotegia  
zabalik

Deitu  
erreserbak  
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**



## KONTSUMITZAILEENDAKO AHOLKUAK

### Berrikuntzak Soinu Digitalean



Argazkian ageri direnak MiniDisc-ak dira. CD-ak baino tamaina tikiagokoak, behin eta berriz grabatzeko gaitasuna dute eta kalidade aldetik, paretsuak dira. Grabazioak aurkitzeko sistema ere arunt azkarra dute eta berehala aurki daiteke nahi den grabazio edo kanta.

Bertzalde, DCC erreproduktoreetan lehengo kasette zaharrak ere aditzen ahal dira. Minidisc erre-

produktorea, aldiz, bakar bakarrik mota honetako diszentzat baliagarria da. Bi erreproduktoreen prezioa 100.000 pezeta (4.000 libera) ingurukoa da eta sarrera librea duen edozein musika aparailuri konektatzen ahal zaio (AUX, TAPEZ, etab...).

Asmakizun berri xamar guzietan bezalaxe, oraindik ezin da jakin hauetatik zein izanen den nagusituko dena eta jende artean gehien hedatuko dena. Eraberean, ezin da zehaztu zein izanen den beraien prezioa masiboki produzitzen hasiko direnean.

*Minidisc-ean eta DCCan lehengoaren gaintetik grabazioak egin daitezke. CDean ez. DCC erreproduktoreetan, bestalde, lehengo kasette zaharrak ere entzun daitezke.*

Hirurogeita hamargarren hamarkadaren erdi-bukarera aldera COMPACT DISC izeneko inbento berria sortu zen. Diska formato berri honek soinu kalitate nabarmenki hobea eskaintzen zuen, biniloizko diska, kasettea, etabarrekin konparatuz.

Geroztik, urte aunitz igaro dira eta Compact Disc-aren arrakasta erabatekoa izan dela erran dezakegu. Multinazional haundiek, Philips eta Sony buru direla, arlo honetan asmakizun berrien bila aritu dira etengabe.

#### KASSETTE DIGITALA ETA MINIDISC-A

Orain dela pare bat urte DCCa (kasette digitala) eta MINIDISCa (tamaina tiki-kiko diska digitala) sortu ziren. Soinuaren kalitatea Compact Disc-aren gisakoa da, baina hauetan grabazioak egin daitezke. DCCan grabazio kopurua mugatua da, ez ordea minidisc-ean, hemen mugarik gabe grabatu baitaiteke (milioi bat aldiz, kalitaterik galdugabe).

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## MENDI IRTEERAK

### ELIZONDO

► **Maiatzaren 26an** Baztango Mendigoizaleak Bost Milak egiten dituzte.

### ► Ekainaren 2an

Baztango Mendigoizaleak Leitzara joanen dira.

## ANTZERKIA

### ETXALAR

### ► Ekainaren 2an

Trokolo taldearen 'Liburulariak' antzeslana Herriko Plazan.

## BERA

### ► Maiatzaren

**21etik 23ra** Berako II. Antzerki Gazte Ihardunaldiak. Xehetasunak 9. orr.

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

### ► Maiatzaren 13tik

**26ra** Arizkunenean arratseko 7etatik 9etara FOCAP Ikastaroetako ikasleek egindako margo lanak eta ITGko Ikastaroetako ikasleek zaharberitutako mobilak.

## GUARDIAKO BOTIKAK

### ► Maiatzaren 20tik

**26ra** Etxalar, Ituren, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

### ► Maiatzaren 27tik

**ekainaren 2ra** Arantza, Narbarte, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

### ► Ekainaren 3tik

**9ra** Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leiza eta Goizueta.

**BORTZIRI**  
ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA  
Tfnoa: 63 10 91  
Iturlandeta, 1 • 31780 BERA

CANAL

### GISA GUZIETAKO ANTENEN INSTALAZIOA:

- Kolektiboak, Indibidualak
- Parabolikoen instalazioa 50.000 Ptatik. aitzinera.
- Hari-musikalen instalazioa

*Eskatu aurrekontuak loturarik gabe*

Televés



## ETXEBIZITZAK

**Borda** erosiko nuke, edozein egoeratan dagoela ere. ☎ 149844 (Antonio Gila).

**BERA.** Etxea salgai. Prezio negoziagarria. ☎ 631422 edo 450242.

**BERA.** Pisua alokairuan emanen nuke Agerra auzoan. ☎ 630075.

**BERA.** Pisua salgai Iturlandeta 6an (Moliner drogeriaren blokea), 2.A. ☎ 630455.

**Borda** bat erosiko nuke bere terrenoarekin Malerrikan. ☎ 451774.

**Borda** edo baserria erosiko nuke. ☎ 943 - 454448.

## DENETARIK

**Astizko kontzejua:** Aterpea alokairuan eman nahi dugu. 40 plaza, taberna-jatetxea. Aralar inguruan, Lekunberritik 5 km.tara. ☎ 948-604619.

**Urrezko katea** aurkitu dut Lesakan, Xaruta ostatuaren parean, apirilaren 27ko gauean. ☎ 637474.

**ARANTZA.** Bajera haundi bat alokairuan emanen nuke. ☎ 07.33. 59510694 (arratsetan).

**BERA.** 60 m<sup>2</sup>ko bajera, ura eta argiarekin, salgai Burge plazan. ☎ 631137 edo 630941.

**LESAKA.** 58 m<sup>2</sup>ko lokala salgai. Edozein negozio-jartzeko prestatua. ☎ 637453

**LESAKA.** Bi garaje plaza alokairuan emanen nituzke Albistur 63.an. ☎ 637820.

**Kartelak,** buzoiratzeko papearak, bisita txartelak, Faktura taloiak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.

**Zurgin-erreminten** kutxa agertu da Lesakako Legarra paperdaren inguruetan.

Barnean erremintak ditu, egurrezko kiderretan 'X' batez markatuak. Bizkarretik zintzilik jartzeko uhala ere badu. Zeurea baldin bada, deitu. ☎ 637030.

**Bizikleta estatikaren** bat sobran baldin baduzu, guk bat nahi dugu ona eta merkea. ☎ 450428 Doneztebe.

**Segamakina** ttiki bat erosiko nuke. Bigarren eskuakoa. ☎ 243025 (Lazaro).

**Dutxa-plaka** eta **sukalde-rako fregadera** erosiko nituzke, biak portzelana txurrian. Merke, noski. ☎ 451537 (goizetan).

**Belarra** goititzeko makina merke salduko nuke. ☎ 450998.

**Baserriko** mogleak, paretako erlojuak, sakelekoak, komedore mahaiak, brontze eta kobrezko ontziak, harri landuak, bionboak, pinturak, laminak, kutzak, oheak, arkak... erosiko nituzke. ☎ 943 - 454448.

## IBILGAILUAK

**Audi SAMPI ARAGON**

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

**Kawasaki ZZR 600** motoa salgai. SS-AL matrikuladuna, 20.000 km eta 91. urtekoa. ☎ 631137 (10etatik aitzinera eta otorduetan).

**BMW K-10RS** motoa salgai, 350.000 pezetatan. ☎ 943. 216281 (arratsaldetan, Mikel).

**Renault 11** diesela, NA-P matrikuladuna salgai. ☎ 510460.

**Peugeot 309** diesela, NA-AD matrikuladuna salgai. ☎ 510558.

**Cota 309** motoa salgai. ☎

## MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko autoetan aukera zabala: Suzuki Vitara NA-AF, Suzuki luzea, Land Rover...

630686.

**Rieju MR 80** motoa salgai. Egoera onean ☎ 450321.

## AZIENDAK

**Artzai zakurkumeak** salgai. ☎ 504492.

**Katukumeak** emanen nituzke. ☎ 387017.

**Husky siberiar** arrazako zakurkumeak salgai. Pedigrea dute. ☎ 610923.

## LANA

**Neska** batek lan eginen luke haurrak zaintzen edo etxeko lanetan, Betatik 2etara. Esperientziarekin. ☎ 631348 (Begoña).

**Neska euskaldun** batek lan eginen luke haurtzain edo etxeko lanetan. Esperientziaduna. ☎ 637492 (Amaia).

**22 urteko neska** eskaintzen da haurrak zaintzeko. ☎ 610625 (Itziar).

**Neska** bat behar da haurrak zaintzeko. Deitu 19,30etatik aitzinera ☎ 631489.

**Udan, neska** batek lan eginen luke Beran haurrak zaintzen. ☎ 630516. Maitane.

**Mikrofusio tailerraren** arduradunarekin harremanean jarri nahi nuke. ☎ 452360-393005.

**Neska** batek udartearen lan eginen luke Lesakan haurrak zaintzen.. ☎ 637179 arratseko 8etatik aitzinera. Amaia.

## AGURRAK

**Urdazubiko** Yolanda Suhas-i zorionak urtebetetze egunean (maiatzak 6) eta ea merienda txiki bat prestatzen diguzun. GM, AA, MA eta EA.

**Jon Pikabeari** zorionak bere 16. urtebetetzean, maiatzaren 7an, bere osaba, izeba eta lehengusinak.

**Aintzane Goienetxeri** bere 12. urtebetetzean (maiatzaren 7an) zorionak bere ama, aita eta anaien partetik eta, berandu bada ere, ia gonbidatzen duzun berendatzera.

**Arrasateko** Andoni: Uda-berri honetan zutaz inoiz baino gehiago maitemindua nago. Zuk dakizun neska-karen partez: zorionak.

**Arrasateko** Koldo eta Josuri: ezagutu ditudan mutilik zoragarrienak zarete. Nire partez zorionak eta muxu bero-beroak zuen ezpain goxoetan.

**Jose Luis Oskoz:** zorionak maiatzaren 18an, Ittungo iloben partez. Egun ona pasatzeko familia eta lagunekin.

**Mugaireko** Jaione eta Karmeleri: ez pentsatu Ellen McPherson eta Claudia Schifer zaretenik.

**Erratzuko** M.E. eta J.E.ri: oso onak zaudete. A.B. eta E.M.

**Arizkungo** I.S.ri: telefono deiengatik ez lotsatu, beharbada gehiago izanen dituzu eta. Zutaz maiteminduta nago. B.G.

**Kaixo Arantzako** lagunak: Rikardo Barojako ikasleak gara. Eskolan ongi pasatzen dugu. Zer nahiago duzue, eskolan ala kanpaldian? Agur benur eta jan jogur. Rikardo Barojako 1. eta 2. mailakoak.

**Leitzako** Joseba Otermine-

ri: oso guapoza zara. Agur ne O.

**Iñaki Bertizeri:** zorionak. Maiatzaren 3an bortz urte egin zituen. Bere osaba-izeba eta lehengusuak Beratikan.

**Juanito Belauntzaran, Pedro eta Carmen Onsalorentzat** beren urtebetetze egunetan zorionak. Aresoko Onsaloin-txaurrondo familiaren partez.

**Udane Cabeza:** zure lehen jaunartzean (maiatzak 26) zorionak.

**Leitzako** 5.A mailakoei, ez naizela gelako inortaz gusatzen. L.D.

**Fermin Martikorena:** oso ona zaudete. Zure gelako neska baten partez.

**Beltran Ruiz:** Kubitoak zer?

**Zorionak** Aresoko Zuriñe eta Patxiri, Uxue eta Terexari beren urtebetetze egunetan. Ongi pasa. Familiakoak.

**Zugarramurdi eta Sarako** gazteei eta laneko lagun izan diren guzietan mila esker nitaz oroitzeagatik eta egindako agurafari eta opariengatik. Zuen laguna: Gaineke Bentako Mattinen partez.

**Ezkurrako** Bittorri: Elizondoko neska kuadrilla baten partez. Arras ona zaudete. Ez aldatu.

**Berako** Miguel Cachafeirori: oso ona zaudete eta zurekin ateratzea gustatuko litzaidake. Zure atzetik dabilen neska bat. (Ez naiz Lourdes A.)

**Fermin M.:** Errepikatzen dizut; ixilik egon. O.ren partez.

**72674007 X:** Zure begi eder hoiek txoratzen naute. Zutaz liluratuta nago. Zuk ezagutzen duzun mutil baten partez.





# EZKALO

Jose Antonio Elizondo Jauna • API 129

INFORMAZIOA: 451518 (Doneztebe) • 23 48 30 (Iruñea) • 908. 77 76 96 (Mugikorra)

Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero



### Bera.

• Luxuzko etxebizitza herriaren erdian 1.000m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin


### Leitza.

• Arratxenea etxean 190m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Hartziko 8 balkoi, 30 m<sup>2</sup>ko terraza, gasoilezko kalefakzioa, propanoa sartzeko prestatua. 5 logela, 2 bainu oso eta komuna bat. Egongela tximiniarekin. Kanpo aldeak berrituak. 160m<sup>2</sup>ko ganbara.



**Zubieta.** • 70m<sup>2</sup>ko bi solairuko borda salgai. Egoera onean. errepide ondoan.

**Legasa.** • Estrenatu gabeko etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, 3 logela, komuna. 89 m<sup>2</sup> erabilgarri. 6.300.000 Pta. • Etxebizitza alokatzen da. 35.000 Pta./hileko.



**Irurita.** • Pisu, apartamentu eta bajeak salgai. 6.500.000 Pta. goiti.

**Ornoz.** • Lehen Iruñeko Kutxak zuen bajera alokairuan emanen

genuke. Bulego, ileapaindegi edo mediku kontsultarako egokia. 40.000 Pta./Hilean.



**Ituren.** • Bizitzen jartzeko moduko borda salgai. 5.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua. 6.000.000 Pta. • Menda-urko magalean 45m<sup>2</sup>ko borda salgai. 1.200.000 Pta.



**Oieregi.** • Lehenbiziko solairuko etxebizitza salgai. Sukalde hornitua, egongela marmolezko tximiniarekin, 4 logela, 2 bainugela, garagea, baratzea eta gasoilezko kalefakzioa. Gineako egurra, lehen mailako kalitatea. 17.000.000 negoziagarriak. 'Multi-riesgo' aseguru urte baterako eta Amezitia jatetxean bi lagunendako afaria opari gisa.



**Elgorriaga.** • Etxe mobleztatua, garagea eta lorategiarekin alokairuan emanen genuke. 50.000 Pta./Hilean.



**Sesma.** • Lizarra ondoan kobazulo-etxea salgai. Bista ederrak. 350

m<sup>2</sup>ko lorategia. mobleztatua. 7.300.000 pta.



**Errazkin.** • 70m<sup>2</sup>ko hiru solairu dituen etxea salgai. 150 m<sup>2</sup>ko lorategia. 5.500.000 Pta. negoziagarriak.



**Elizondo.** • Pisuak alokairuan emanen nituzke. hilabetean 20.000 Pta. tik goiti. • Saskaitz plazan pisu mobleztatua salgai. 9.000.000 Pta.

**Betelu.** • Etxe bat eta bere 8.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai. Lur eremuan etxeak egiten ahal dira. Prezio negoziagarria.




**Ultzama.** • Lizaso inguruan iturria duen borda salgai. 130 m<sup>2</sup> solairuan. Badu bidea.

**Mendikute-Monteagudo.** • Bizitzaren jartzeko moduan dagoen etxea salgai. Tuteratik 6 km. tara. 3.500.000 Pta. edo Baztan, Bidasoa, Malerreka aldeko borda batekin trukean emanen nuke.



**Donamaria.** • Igurin auzoan txaleta

bere lur eremuarekin salgai. 15.500.000 Pta.




**Iraizoz.** • Txaleta salgai 800 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin. 15.500.000 Pta.

**Lesaka.** • Lesaka inguruan, bizitzaren jartzeko moduan dagoen errota salgai. Prezio negoziagarria.

**Doneztebe.** • 90 m<sup>2</sup>ko bajera prestatua alogeran emanen nuke. 50.000 Pta./Hilean.

**Doneztebe.** • 80 m<sup>2</sup>ko bajera komertziala, 100 m<sup>2</sup>ko baratzearekin salgai. Prezio negoziagarria.



**Hendaia.** • 36 m<sup>2</sup>ko apartamentua salgai. Topo estazioaren parean. 6.000.000 Pta. Negoziagarriak.

**Etxeak, baserriak, bordak, errota, bajeak... erosiko nituzke Nafarroa osoan**

**Etxeak zaharbertzako aurrekontuak prestatzen ditugu inolako loturarik gabe. Etxeak eta lur eremuak tasatzen ditugu. Finantziarioak eta notario aintzineko tramitazioak ere arduratzen gara. Etxe, borda edo baserriren bat erosten duenari, arrisku orotako aseguroa egiten diogu urte baterako, eta bidenabar, berak aukeratutako jatetxean, lau pertsonendako otordura gonbidatu.**



# Ornozko

## SAN MARTIN ESKOLA



**1996-97 ikasturtea**

**OIHANGINTZA  
AGROPEKUARIA  
MEKANIKA  
SOLDADURA  
HOSTALARITZA**

**Bigarren  
kurtsoa**

**Nork egin dezake?**

REM (nahiz ez aprobataua izan) edo BUPeko bigarren kurtsoa egin duenak. Eta gero, Iruñean plaza lortzeko segurtasuna izanen da (Agropekuaria, Mekanika, Oihangintza...) ikasteko.

**GAUZA BERRIAK 1996-97 kurtsoan**

**AROTXA** (Soldadura, burni lanak, nekazal tresnerien konpontzea...)

**HOSTALARITZA** (Sukaldari Laguntzailea)

**OIHANGINTZA**

Hasi: 16 urtetan. (REM edo BUP utzi baduzu eta titulurik ez baduzu)

Nola: Egunero eta goizetan.

**Deitu 948 - 592006 telefonora**

**Urte bat  
edo bi**